

# KALKO OKERRAK

Ikasmaterialen Aholku Batzordea  
Estilo-liburuaren bigarren atala

# KALKO OKERRAK

Juan Garzia Garmendia

Ikasmaterialetako hizkuntzaren  
egokitasun-irizpideak finkatzeko  
Aholku Batzordea

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2005

GARZIA GARMENDIA, Juan

Kalko okerrak : [Ikasmaterialen Aholku Batzordea, estilo-liburuaren bigarren atala] / Juan Garzia Garmendia. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2005

or. ; cm. – (Hizkuntza Prestakuntza ; 12)

ISBN 84-457-2298-0

1. Itzulpengintza eta interpretazioa. I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Izenburua. III. Bilduma.

82.035

Argitaraldia: 1.a, 2005eko maiatzean  
Ale kopurua: 3.000 ale  
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila  
Internet: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)  
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz  
Fotokonposizioa: Eusko Printing Service, S.L. EPS  
Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.  
ISBN: 84-457-2298-0  
Lege-gordailua: VI-175/05

## SARRERA

Alfer-lana litzateke esatea kezka ez dela berria. Hezkuntza Sailak, 1982. urtean EIMA (Euskal IkasMaterialgintza) izeneko programa abian jarri zuenetik, ardua bizia izan du euskarazko eskola-materialak sortzen laguntzeko, materialgintza hori diruz laguntzeko, kalitatea bultzatzeko eta bertako hizkuntza-trataera zaintzeko. Ez alferrik argitaratzen dira urtean 400etik gora ikasmaterial gure ikastetxeetan erabiltzeko, eta ezin nola-halako edozein euskara molderekin konformatu eta etsi.

Ez gara ezerezetik abiatzen, jakina, ereduzko maila horri eusterakoan. Euskararen oinarritzko legez gainera, hor ditugu Euskaltzaindiak emandako eta onartutako arauak eta gomendioak. Horiek guztiz zaintzeko eta betearazteko konpromisoa aspalditik egin genuen geure.

Euskaltzaindiaren arau eta gomendioak, gero eta zehatz-ugariagoak izan arren, motz geratzen dira sarri, eskola-munduko testuei dago kienean. Ez dago zertan harritu: euskararen normalizazio-bidean ertz eta koska askotxo dago oraindik leuntzeko, eta horietariko hainbat sarri samar erabiltzen da ikasmaterial horietan. Batzuek eite teorikotik dute gehiago, dudarik gabe; beste batzuk, aldiz, zergatiko pragmatikoagoe-tara egokiago eta beteago jartzen dira.

Eskola dugu, nolnahi ere, beti eta nonahi gogoan. Eskola esparruko euskara moldeen zer-nolakoa eta zenbatekoa dugu, halakoetan, begien bistan. Eta hara begira, euskararen eskola-munduko erabilera zuzenaren eta egokiaren arrastoan alegia, ibili eta bidea egin nahi dugu

Sailetik. Ez dugu laborategiko euskara perfektu eta makulu-gabe baten ilusio inozorik buruan, ezpada lan-tresna eroso eta erabilgarria eskaintzea eskola-materialak argiak, errazak, egokiak eta komunikagarriak izan daitezzen. Eskola-liburuek ezer eskaini behar badute, ez da distiraz eta nabarmentze-asmoz modu korapilatsuan emandako ideien eta kontzeptuen bildumarik. Komunikagarritasunak behar luke izan azken helburu, eta hori argi idatziz baino ezin da lortu. Zer esan behar den, zer irakatsi behar den garrantzizkoa bada eskolan, ez da gutxiago *nola esan* eta nola irakatsi behar den. Ikasleak benetako belakiak dira: zer eman, hura hartzen dute. Eskola-materiala, bestalde, efektu biderkatzaile handiko eragilea da hizkuntzaren trataeran. Hizkuntzaren hondatze-arrastoei aurka egiteko ere gune aproposa da eskola.

Testuinguru horretan ulertu behar da Sailak ikasmaterialgintzan dihardutenentzat egin nahi izan duen estilo-liburua. Urri eta berankor ibili da euskara, ezinbestean, alor horretan ere; txit mugatuak izan ditu luzaz, eskola-giroko erabilera oparo, arautu eta jarraikiaren atea. Nolanahi ere, ongi ezaguna dugu estilo-liburuek azken urteotan gurean ere izan duten protagonismoa. Berezkoa da aldatzea eta aurrera egitea, eta ez gara nor, aldi-bitarte luzeagorik igaro arte, estilo-liburuok zenbaterainoko eragina izango duten asmatzeko. Ez dugu dudarik egiten, nolanahi ere, orain arteko estilo-liburu horien eragina onuragarria izan dela. Eskola-mundurako prestatzen ari garen estilo-liburu honekin ere beste horrenbeste gertatzea nahi genuke. Zatika ari gara estilo-liburua prestatzen, eta zatika (kasuan kasuko atala zoritua dagoela uste izandakoan) argitaratzen ere ari gara.

Liburukion edizioak kontuz eta arretaz egin nahi dira. Duela hila-bete gutxi atera zuen Sailak lehen liburukia: Joxe Ramon Zubimendik atonduriko *Ortotipografia*, hain zuzen ere. Hari jarraipena ematera dator esku artean duzun hau eta honekin batera argitara eman den *Onomastika* izeneko liburukia ere. Plangintza baten beste urrats bat dira. Hura izan zen lehena; hauek bigarrena eta hirugarrena. Eta ez dira azkenak izango; abian dira beste hainbat txosten ere: *Morfosintaxia*, *Puntuazio-mar-*

*kak, Ahoskera eta prosodia, Tradizioko testuen transkripzio-arauak*, eta abar. Ez dira izango filologo jakintsuentzat asmatutako liburukiak, egunero-ko lanean ari direnentzat baizik.

*Kalko okerrak* du izena eskuetan duzun honek. Azken urteotan euskararen mugarrri gertatu den *Joskera lantegi* (1997) liburuaren egile den Juan Garzia Garmendia gramatikari eta Ikasmaterialen Aholku-batzordeko kide ere denak atondu du. Egile nagusia bera izanik ere, jende askoren ekarpenak jaso ditu lan horrek bere ibili luzean. Lehenik eta batez ere, Ikasmaterialen Aholku-batzordeko kideenak; baina baita beste askorenak ere.

Idazle askoren ustea da euskarak azken urteotan hartua duen erronkarik handiena estiloarekin zerikusi zuzenagoa duten aukerak urratzean dagoela. Hortik jo du Juan Garziak. Kontaktuan dauden hizkuntzen arteko dialektikan sortzen diren interferentzien eta kalkoen inguruko sarrera teoriko labur baten ondoren, perpausen barruko elementuen kalkoak eta perpausetik goragoko kalko jakin batzuen azterketa praktikoz dihardu. Beste modu batera esanda, gaur eguneko euskal prosak estilo aldetik duen hainbat arazo gordin eta bihurriren sintesi-lana egin nahi izan da bertan.

Gaur eguneko euskararen arazoak –eta, ondorioz, eskola-liburuenak– ez dirudi hainbeste Euskaltzaindiaren arauak ongi betetzen diren ala ez direnik –bigarren edo hirugarren mailako arazoa da hori hainbat liburutan–, estilo propio bat urratzea baizik. Liburuki honen ekarpenik nabarmentzekotan, beraz, honako hau esango genuke: gaur eguneko euskaldun ikasi arruntaren akats eta zalantza ohikoenak argitzen laguntzen duela saiakera honek. Lan biziki interesgarria da, alde horretatik, Juan Garziak prestatu diguna.

Lanak Euskaltzaindiaren bermea izan zezan nahi genuen, jakina. Hori izan da Hezkuntza Sailaren jokabidea, hasiera-hasieratik, eta lehen-go lepotik dugu orain ere bidea. Oniritzi ofizialaren asmo horrekin, libu-

rukia argitara aurretik, propio aurkeztu zitzaion lana Euskaltzaindiari. Hona hemen bertako Gramatika-batzordearen erantzuna:

Gramatika Batzordeak *Kalko okerrak* aztertu du Donostian egindako bi bilertan, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak galde egindakoari erantzuna ematen dio idazki honen bidez.

Gramatika Batzordeak uste du, bai lan honen gainean nola honen antzekoak izan daitezkeen beste batzuen gainean (on)iritzia eskatzen zaionean, nekez eman dezakeela behar bezala funtsatutako irizpena, non ez duen hausten eskuartean dituen gainerako lanak aurrera ateratzeko lehenagotik finkatu prozedura, gai korapilatsuak baitira horrelakoetan aztertzen direnak, berezko azterketa sakona beharko luketenak.

Hori garbi utzirik, Gramatika Batzordeak esan behar du, lan honi dagokionez, egokia aurkitu duela, Euskaltzaindiak orain arte batasunerako eman dituen arauak errespetatzen baititu.

Hala ere, lan honetan, gramatikarekin lotzen diren puntu asko daude, gramatika batzordeak oraingoz bere sakontasunean aztertu ez dituenak. Kontu horietaz bere garaian esango du Gramatika Batzordeak esan behar duena, egoki ikusten baldin badu.

Gauzak horrela, eta kontuan izanik batzordekideek izan dituzten eztabaidak, batzorde honek uste du, erabilitako arrazoibidea indartzeko behin eta berriz ematen diren adibideak, bakoitzari dagokion testuinguruan, ez beste batean, ulertu behar direla beti. Eta ematen zaien interpretazioarekin, ez beste batekin. Lanak berak zehazten ditu bai testuingurua, bai interpretazioa. Horrela baka-rrik bereizten ahalko dira adibide egokiak eta egokiak ez direnak. Eta, gainera, zerbait egokia ez dela esaten denean, eta aldamenen egokia ez bide den adibide horren ondoan beste adibide bat egokitze jotzen denean, bistan da adibide hori bezala, euskarak izan ditzakeela beste hainbeste adibide, esamolde eta esapide hor berean, adierazi nahi den gauza bera adierazteko.

Lanak balio izan dezake egiten diren zenbait gehiegikeria zuzentzeko, sarritan ez baikara konturatzen zenbaterainoko eragina duten euskal hiztunen artean inguruko erdarek, kasu honetan, eta lan honi dagokionez, gaztelaniak. Euskaltzaindiak, noizbait beharrezko ikusten badu, eta egoki, lan honetan ageri diren puntuez bere iritzia adieraztea, eta hemen ematen diren gomendioak, edo beste batzuk, behar den mailan arautzea, hala egingo du.

Puntu asko egon arren oraindik Gramatika-batzordeak berak sakontasunean aztertu gabeak, zera iritzi dio hark Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aurkeztutako lanari: «lan egokia aurkitu du, Euskaltzaindiak orain arte batasunerako eman dituen arauak errespetatzen baititu». Ohar eta iradokizun batzuk ere egin zituen batzordeak, erantzun-idazki horrezaz gainera. Ohar eta iradokizun horiek denak orpoz orpo jarraitu eta jaso ditu Juan Garzia egileak berak.

Hartara, Euskaltzaindiak gerora alor horretan erabaki ditzakeenak inoiz baldintzatu gabe, araubidezkoa den aldetik, euskarazko ikasmaterialetan, liburuki honetan zedarritzen diren irizpideetara jotatzea gomendatzen du Sailak.

Besterik ez, honenbestez. Soil-soilik, alde batetik, Ikasmaterialen Aholku-batzordeko (IAB) kideei –X. Mendiguren Bereziartu (Euskal Editoreen Elkarteak izendatua), J.R. Zubimendi (Euskaltzaindiak izendatua) eta J. Garzia (EIZIEk izendatua)– eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, eta bestetik, beti bezala, zuri, irakurle saiatu horri, afera honetan eragile izan zaitezela eskatu nahi dizugu. Euskararen onerako, aha-lerin honetan asmatu izana da gure uste eta desio bakarra. Zernahi dela ere, ordea, jakizu zure ekarpen baliotsuak jasotzeko prest gauzkazula noiznahi. Hemen gaude: <huiseus4@ej-gv.es>.

Oraingo bi liburuki hauek probetxugarri gerta dakizkigula guztioi, eta horien ondoren etorriko direnen bide-erakusle gerta daitezela. Hala desio du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, eta halaxe adierazten dut haren izenean.

Gasteizen, 2005eko otsailaren 28an

ANJELES IZTUETA AZKUE

**Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua**



# Aurkibidea

<b>Hitzaurrea</b> .....	13
1. Hizkuntzak eta haien arteko eraginak .....	13
2. Kalkoak .....	15
3. Nola identifikatu kalko okerrak .....	21
<b>Perpaus barneko elementuen kalkoak</b> .....	25
1. Izen-sintagmaren esparrukoak .....	25
1.1. Izenak direla eta .....	25
1.2. <i>Bat</i> ala <i>-a?</i> ( <i>batzuk</i> ala <i>-ak</i> ) .....	26
1.2.1. <i>-a(k)</i> mugatzailearen erabilera .....	27
1.2.2. <i>Bat</i> zehaztugabearen erabilera .....	28
1.2.3. <i>-a(k)</i> zein <i>bat</i> zilegi diren kasuak .....	29
1.3. Erdaraz izenaren aurretik doazen adjektiboen euskal ordainak .....	31
1.3.1. Azalpen orokorra .....	31
1.3.2. Izenondo batzuen erabilera ustela .....	34
1.3.2.1. <i>Berri</i> .....	34
1.3.2.2. <i>Desberdin, ezberdin, diferent(e)</i> .....	35
1.3.2.3. <i>Lehen</i> .....	39
1.4. <i>Ez + handiegirik</i> / <i>ez + gebiegi(rik)</i> .....	40
1.5. Kopurua/kantitatea/neurria («zazpi lan», «lana franko», «lan handia») ....	41
1.6. Numero gramatikalaren gorabehera (mugagabea singular-pluralekiko) ..	43
1.6.1. Absolutiboa ez besteko kasu pluralen adiera mugatua .....	43
1.6.2. Zenbatzailerik gabeko mugagabea .....	45
1.6.2.1. Noiz den egoki .....	45
1.6.2.2. Kalko sarrienak .....	46

2. Aditzen erabilerari dagozkionak .....	50
2.1. Azalpen orokorra .....	50
2.2. Kasuistika .....	51
2.2.1. Aspektuarekin loturikoak .....	51
2.2.1.1. Orainaldia geroaldiaren ordez (* <i>joaten gara &gt; joango gara</i> ) ..	51
2.2.1.2. "Presente historikoa" (* <i>jaiotzen da &gt; jaiio zen</i> ) .....	52
2.2.1.3. "Futuro historikoa" ( <i>sortuko/sartuko da // sortu/sartu da/zen</i> ) ....	54
2.2.1.4. Orainaldi narratiboa ( <i>sortzen/sartzen da // sortu/sartu da/zen</i> ) .....	55
2.2.1.5. <i>-t(z)en</i> forma burutugabearen erabilera puntukaria .....	57
2.2.1.6. Aditz trinkoen erabilera ez-puntukaria .....	60
2.2.2. Aditz-perifrasiak .....	61
2.2.3. Aditz modalak .....	63
2.2.3.1. <i>Behar izan</i> .....	63
2.2.3.2. <i>Nahi izan</i> .....	64
2.2.4. Baldintza .....	65
2.2.5. Ahalera .....	68
2.2.5.1. Oro har .....	68
2.2.5.2. Agintera gordina leuntzeko .....	70
2.2.5.3. Ahalera gaztelaniazko subjuntibozko perpaus erlatiboen ordain (* <i>gerta litezkeen kalteak</i> )? .....	71
2.2.6. <i>Egin</i> aditz anaforiko ustela .....	72
<b>Perpausetik gorako kalkoak .....</b>	<b>73</b>
1. <i>Bezala</i> ustela .....	73
2. Erakusleen testu-erabilerak (anafora/katafora) .....	75
2.1. Azalpen orokorra .....	75
2.2. <i>Haren (+beraren) eta bere</i> .....	76
2.3. Erakusleen lehen gradua gehiegi erabiltzea ( <i>hauzaleria</i> ) .....	78
3. Trinkotze-prozedurak .....	82
3.1. Oro har .....	82
3.2. Sasimenderatuak .....	83
3.2.1. Gerundio narratiboa (baztertzekoa) .....	84
3.2.2. Erlatibo esplikatiboa .....	84
3.3. Nominalizazio-estiloaren gehiegikeriak .....	86
4. Gainerakoak .....	89

# Hitzaurrea

## 1. Hizkuntzak eta haien arteko eraginak

Bi hizkuntzaren arteko eraginei buruz mintzatzen hasi orduko, hizkuntza horietako bakoitza ongi mugatu eta definitua eduki behar genuke, ezer argirik eta argigarririk atera nahi badugu. Badakigu, hala ere, ezinezkoa dela hizkuntza baten *argazki* oso eta zehatza lortzea; bai une historiko jakin bat harturik (banakako erabileren batez bestekoa baita Hizkuntza, hots, abstrakzio bat), eta bai, areago, denboran zehar (aldatuz baitoa etengabe).

Hortik dator, bada, lehenbiziko eragozpena: hizkuntza biren arteko eraginak berez ere antzemangaitzak izanik, hizkuntza bakoitzaren erabateko definiziorik ez horrek areago lausotzen ditu gauzak, oinarritik bertatik.

Praktikan, haatik, hizkuntzaren molde eta erabilera gehienen egokitasunari buruzko adostasun zabal samarra aurkitzen dugu, oro har (hiztunen *intersubjektibitatez* lortzen da adostasuna). Hala ere, hizkuntzaren kode-balioa bermatzen duen adostasungune finko horretatik urrundu ahala, lausotuz eta zalantzagarriago bilakatuz joan daitezke gauzak, eta zailago bihurtu *arau* edo epai ziurrak ematea.

Besteak beste, aurretik (oso) ibilia ez den eremuetan ibiltzen hasten bada hizkuntza jakin hori, berez datoz zalantzak, adostasun hori gorpuzteko adina leku eta denbora behar baita alor berriok ere hizkuntzaren gune finko nagusian integratzeko.

Hizkuntzaren hedapenetik berez datorren berritu behar hori (espezializazioaren gradu guztietan) alde batera utzirik ere, izaten du eguneroko hizkuntza arruntak berak ere premia eta helburu aldakorretara

egokitu beharra (zentzurik zabalenean uler bitez premia-helburuok: aurrerapen teknikoa, estetika, jolasa, jakintza-bidea, erosotasuna...). Hala sorturiko aldakuntzak beti dira, hasieran, ordura artekoarekiko *desbideratze* partikularrak, gero, arrakasta izanez gero, bidea egin eta arau orokor izateraino irits daitezkeenak.

Hala, berezkoa eta etengabea da hizkuntzaren baitako lehia edo tirabira hori. Arauemaileak, hiztunen batez bestekoaren defendatzaile gisa, dagoeneko finkaturik dagoenari eutsi behar dio eginahalean, kode erkidea indargabetu ez dadin, ondo jakinik ere ez daukala gelditzerik aldakuntza anitzezko bor-bor hori. Nolanahi dela ere, berrikuntzek ere kode *zabarretik* abiatu behar dute, hots, haren hedapen izan behar dute, eta kode horrexek eman behar die onespén-bermea.

Honainokoan, hizkuntzen izateari berari dagozkion kontuez ari gara: hizkuntza guztiei dagozkienak dira, beraz, kontuok, indar finka-tzaileen eta aldatzaileen arteko dialektika hori barne. Bestetik, orain arte bakarturik irudikatu badugu ere hizkuntza, gauza jakina da elkarrekiko tratua dutela hizkuntza askok.

Horiek horrela, espero izatekoa da kontaktuan dauden hizkuntzek elkarri eragitea. Kontaktu adina eragin-kasu gerta litezke teorikoki, eta hainbat historikoki, baina bada bat, tipikoa: (eskuarki bestela ere nagusi den) talde nagusi baten hizkuntzak, desoreka nabarmenez, beste menderatuago bati eragiten dionekoa.

Garbi dago hizkuntzaren gizarte-egoera horrek isla garbia izango duela banakako hiztunen buruan (aldi berean gizartezkoa eta norbanakakoa baita hizkuntzen izaera), eta, hiztunok hizkuntza biotan elebidun diren kasuan, erlazio desorekatu horren proiektzio moduko bat aurkituko dugula sarritan: hizkuntza nagusia sendo(ago) eta menderatua ahul(ago).

Hala, gutxienez honako alderdiok hartu behar dira kontuan hizkuntzen arteko kontaktuari dagokionez:

- a) oro har, hizkuntzen ezinbesteko eraberritzerako eragile, bultzagari eta bide-erakusle nagusietakoa da kontaktu hori, aukera alternatiboak ematen dizkienez (hizkuntza guztiak dira mestizoak);

- b) kontaktu estuaren kasuan, hizkuntza bataren berezko moldeetan nahasmenak sor ditzake bestearen eraginak (tipikoki, elebidun batzuek ez dituzte guztiz bereizten bi kodeak);
- c) eragin guztiz desorekatuaren kasuan, hizkuntza nagusiak *jan* egin dezake menderatua (aurrena desitxuraturaz, hurrena desegituraturaz eta azkenik deseginez).

Beraz, hizkuntzen arteko kontaktu guztietatik atera daitekeen onura gure kasuan ere onura dela eta halakotzat baliatu behar dugula inolaz ere bistatik galdu gabe, garbi dago badugula arazo nabarmenik ere gure hizkuntza txikia beste handi horren (edo horien) zamak leherraz ez dezan.

Modu teknikoago batean esateko: erdararen sistemak ez dezan (hasi fonetikatik eta estiloraino, maila guztietan) euskararen sistema –itsuski, gero eta *sistematikoagoki*, hain zuzen– ordeztu. Alegia, euskaraz ari garela euskararen arau eta bideetatik ari gaitezen eta ez beste kode bati dagozkionetatik. Burujabetasun horren erreibindikazioa ez da, alde horretatik, kodearen gutxieneko baldintza baino, hizkuntzak hizkuntza izaten irauteko ezinbestekoa.

Jakina: neurria, tamaina hartzea dugu zailen hor ere, edo hor bereziki, baina ezinbestean heldu behar diogu zezen horri adarretatik. Hizkuntzaren eraberritze-gaitasuna (hots, haren malgutasuna) murrizteke, zinez premiazko edo onuragarri zaiguna eta egoki zaigun moduan bakarrik onartu behar dugu, konplexurik gabe baina kritikoki. Burujabetasunari eutsiz, alegia, eta –hori ere burujabetasun seinale baita– erdaratik ere zernahi hartzeko prest, hala komeni den kasuan: beti itsuki erdararen ihesi ibiltzea ere erdararekiko mendekotasun mota bat da, eta alderantzizkoa bezain larria gerta daiteke.

## 2. Kalkoak

Hizkuntza batek beste baten eredutik berera egokitzen duen egiturari esaten zaio *kalko* (*mailegu* delakoa, berriz, prozedura gordinagoa da: bere horretan hartzen da elementu bat). Hitza ez da, berez, gaitzes-

penezkoa. Askotan bezala, ordea (*kritika* hitzarekin, adibidez, antzeko zerbait gertatzen da), txarrera hartzen da besterik gabe kalko hitza, hots, *kalko oker* zentzuan.

Zentzu bertsuan esaten da beste hizkuntzaren *interferentzia* gertatu dela (alegia, sistema batek bestea ordeztu duela puntu jakin batean). Kasu horretan, badirudi berekin duela hitzak gaitzespena; alegia, beti jotzen dela oker, huts egite, nahastetzat. Nolanahi dela ere, interferentzia zein kalkoaren okertasun hori balioespena da, eta ez deskribapen hutsa, eta, beraz, balioespen guztiak bezala, eztabaidagarri.

Egia osoa esateko, besterik gabe kalko ote den ere (oker zein zuzena) eztabaidagai izan daiteke kasu ez gutxitan. Auzi hori, bestetik, hizkuntzaren *zuzentasunari* eta *egokitasunari* doakiona da, eta horren atal bat baino ez da kalkoena: erabilera –kanpoko eraginez nahiz barrukoz– *ustelak* zein diren nola erabakitzen den. Besteak beste, historikoa (diakronikoa) da kontua, eta, beraz, aldakorra: noizbait kalko nabarmena zena, denborarekin, gerta daiteke erabat integratzea hizkuntzan; «naturaldu» dela esan ohi da orduan.

Eztabaidagarritasun hori goiti-beheiti, hala ere, eta zalantza partikular guztien gainetik, adostasun zabala lor daiteke hor ere gehienetan, muga-kasu eta guzti. Hizkuntzaren *sen* delakoa, subjektiboa izanik ere, intersubjektiboki kontrasta daiteke, eta horixe dugu oinarritzko bermea, hain zuzen, hizkuntzan eta bestetan. Hiztunen eta idazleen esperientzia kontrastatu horren pilaketari esaten diogu *tradizio*, eta tradizio horren ezaguera zabala da bide bakarra kolpea hutsean ez jotzeko.

Horiek horrela, tradizioaren ezaguera sendoa behar du testugileak, eta horrek emango dio ziurtasun baliagarri ia bakarra. Arauak eta abarrek (gure aholkuok barne, jakina) horren lagungarri dira, ondo bidez, baina ezin dute ordeztu ezaguera zuzen hori: ez diote inori bere ordezturikoko testua.

Kalkoen arriskuaz ari garela, areagotu egiten da noski arrisku hori –ohartuki aurka egiten ez bazaio– itzulpenaren kasuan, aurrez aurre baitauka denbora guztian itzultzaileak erdarazko testua, eta hari lotu behar baitzaio.

Erne eta arduratsu jokatu beharra dago, beraz, baina arduraren arduraz eta ernearen ernez beste muturreko gehiegikerian ere erori gabe: ezer ontzat emateko beldurrean edo guztiari okerra bilatzeko obsesioan, alegia (sorgin-ehizan bezala gertatzen baita: bilatzen duenak beti aurkituko du, baita ez dagoen lekuan ere).

Bistan da, bada, bi muturretako arriskuak ditugula hor lehen-lehenik zaindu beharrak, biak ere jokabide itsu bezain galgarri izan daitezke eta:

- a) malgutasunaren izeneko zabarkeria arina (euskarazko hitz-azalezko erdara hutseraino);
- b) defentsazko zurrunkeria (erdarakaden izuzko paranoia antzugarriraino).

Tartean jarrera eta produktu ez hain muturrekoak ere izan dira, beharrik, euskalgintzan, eta horri esker ditugu, besteak beste, orain ditugun auzi berriak berak ere: zorioneko auziak. Bide luzea egin dugu urte laburretan, eta jakina da atzeak erakusten duela aurrea... nola *ez* dantzatu, behintzat!

Eta orain bai: kalko batzuk okerrak dira. Alegia, premiarik gabe jotzen dugu batzuetan erdararen imitaziora, abantaila baino kalte handiagoz. Abantailarik eza, hain zuzen, premiarik ezaren ondorio garbia da. Kaltea, berriz, euskararen sistemari egiten zaiona da, erdararenaz nahasten baita, autonomia eta baliagarritasuna galtzeko bidean jarriz. Sistemaren osotasuna ez du kalko oker bakarrak hankaz gora botako, baina han-hemenkako erasotxo sarriek bai kolokan jarri.

Aurreraxeago saiatuko gara sailkatzen hizkuntzaren sistemaren zein ataletan eragiten duten nagusiki interferentziarik zabalduenetako batzuk («zabalduta» horrek, hain zuzen, berezko sistema ordezteko lehian dabiltzala esan nahi du). Oraingoan, hala ere, *erdarakada* lexikal tipiko bat irudikatzea aski dugu, hitz solte, esapide zein termino: «laburmetraia», «ilea hartu», «ibi iraunkorra».

Bistakoa da, hiru kasuetan, bestela eta hobeki adieraz daitezkeela ideiak euskaraz (hots, premiagabeak eta kalterakoak direla kalkok). Nagusitzen hasiz gero, bada arriskua kalko okerron orde euskaraz egoki erabiltzen diren edo erabil daitezkeen esateko modu normalak

baztertzeko (aipatuko dugu halako adibiderik gure sailkapenean). Hots, kalkoa *normal* bilakatu eta berezkoa ezohiko bihurtu edo erabat desagertzea etor daitekeela (ez litzateke okerrena, bere tristean; gehienetan, nahaste hutsa da *finkatzen* dena).

Horretaz gainera, *albo-kalterik* ere izaten da eraso itxuraz txiki eta mugatuotan. «Laburmetraia» hitzak, kasurako, gaztelaniak bakarrik darabilen moldeak kalkatzearekin batera, euskarazko arau zorrotzaren aurka ezkerretik loturiko izenondo bat dakar bere baitan, Troiako zaldia adinako kalteak eragin ditzakeena analogiaren bidetik (lehendik ere ibili den joera oker bat indartuz: «sindikalarazoak»...).

«Ilea hartu» ere normalduko bagenu, pentsatzekoa da ez litzatekeela esapide horixe bakarrik sartuko litzazigukeena erdaratik oldean: aurki, esapideen errepertorio osoa beteko litzateke halakoz, eta euskarazko berezkoak bitxikeria huts izateraino erretiratu... Pentsa liteke, bai, aurregi joan ote garen, adibide xumez, okerrerrako hipotesiaren bidean, baina, tantaka-tantaka, kalte-putzu handi samarra bil liteke aurki.

Horiek guztiak, kalteak kalte, hala ere irentsiko bagenu, berriz –hots, sistema lexiko-semantikoa erdararen baitan utziko bagenu (!)–, orain arte berriaz tartean sartu ez dugun beste arazo larri bat genuke: aspalditxotik erdara biren zamapean bizi garenez, erdara biok ados ez diren puntuetan euskaldun batzuen kalkoak ez lituzkete besteek ulertuko (hipotetikoa darabilgu, baina horixe dugu hein handi batean egoera erreala). Bide horretan aurrera egin ahala, bada, bi kode genituzke euskaraz, gero eta bereziagoak: hots, puntu batetik aurrera, bi hizkuntza-edo (erdara banarekiko guztiz mendeko). Jakina: bietako bat erabat desagertuz gero, lasai jarrai lezake besteak... bera ere desagertu arte.

Iruntzitara, hala ere, oso baliagarri gerta dakiguke arazotzat daukagun hori: *beste euskara* horretatik gehiegi ez aldentzen ahalegindurik, euskararen batasuna zaintzeaz batera, euskararen burujabetasunari eusten ariko gara. Hots, ongi begiraturuz gero eta zuhur jokaturuz gero, ez dela halako desabantaila ere erdara bakarraren eraginpean ez egote hori.



Hori bai: *beste euskara* hori ere ezagutzera behartzen gaitu, zuzenean nahiz zeharka, kalkoen zilegitasuna erabakitzeko orduan eta bestela ere. Hots, euskararen tradizio *osoa* ezagutzera (beharrik, hiztegi-gile eta termino-sortzaileek egiten dute gure partez lanaren puska bat). Ezagutzera, eta –neurritz– ezagutaraztera, batu-itxuran euskalkien arteko eten larriagorik ez sortzea baita gure testuen eginkizunetako bat.

Ez ahaztu, bestalde, kalko mota bat baino ez dugula hor aipatu: lexikoarena. Sintaxizko kalkoak, berriz, batzuetan hain antzeman-errazak ez bazaizkigu ere, larritasun biderkatua dute, hitz nahiz esapideen kalko solte, banakakoen aldean: elementu sintaktikoak definizioz dira behin eta berriro errepikatzeak, eta metastasi modura zabaltzen dira hizkuntzaren gorputzean, egitura jakin hori erabiliko den bazter guztietara.

Adibide eztabaidagaitz bat jartzearen, honako egitura hau erabiltzen duen hiztunak:

- \*Ezagutzen ditut mutil batzuk bizi direla baserri batean...

hots, erdarazko *que* erlatibozkoaren eta osagarrizkoaren forma-berdintasuna euskarara kalkatzen duen hiztunak ez du esalditxo horretan bakarrik nahastuko euskararen sistema, baizik, eskuarki, berez *-Na* eta *-LA* bereizi behar liratekeen aldiro. Ikusi, bide batez, hitz-ordenamenduan ere eragiten duen aldaera, hura ere erdararen preposizionaltasunera bortxatuz: hots, kalte zuzenez gainera, albo-kalteak ere biderkatuz.

Bide batez, muturreko adibide horrek berak ongi adieraz dezake noiz ez litzatekeen argudio soziologiko-estatistiko hutsez hartu behar hizkuntzaren erabilera jakin bat, aski zabaldua egonagatik, erabilera normalizat. Hor ez, agian, oraindik, baina baluke batek baino gehiagok tentazioa beste honako hau, esaterako, gramatikal, zuzen, guztiz egokitzat hartzeko (eta, aurki, arkaismo pedantetzat jotzeko orain arteko erabilera normala):

- \*Hain berandu egin zaie, ez direla etorri.

Ez, ez du edozerk berdin balio. *Malgutasuna* ez da nahastu behar irizpiderik ezarekin: *makurtasuna* litzateke orduan, zentzu guztietan.

Ez ditugu sartu hemen arrunkeria nabarmenak, baizik eta testugile trebatu batentzat zalantzarri gerta daitezkeen gramatikaz gorako kontuak. Hemen aipatzen direnez gainera, badira beste asko, muga horretan daudenak. Batzuek morfosintaxi atalean (ere) agertuko dira, hala nola «zer egin duen» zehar-galderaren lekuan «egin duena» erlatiboak erabiltzea.

Badira, bestalde, maiztasunezko kalko dei dakiekeenak; hots, egitura zuzen eta, beren neurrian, egokiak izanik ere, desoreka eragiten dutenak hizkuntzaren berezko joeretan, egituron proportzioa ez baita berdina hizkuntza baten testuetan eta besteetan. Muga hori markatzen are zailagoa da, baina badira kasu batzuk aski nabarmenak. Zentzu horretan interpretatu behar da, besteak beste, nominalizazio-estiloaz dioguna.

Beste adibide bat, aski ezaguna, perpaus erlatiboen abusua da:

- ??Zu izan zara puskatu duzuna/duena.  
→ Zuk puskatu duzu.
- ??Aldapeko sagarraren puntaren puntan txori baten txiruliruria entzun zuen gizon bat zegoen.  
??Baze(goe)n Aldapeko sagarraren puntaren puntan txori baten txiruliruria entzun zuen gizon bat.  
?Baze(goe)n gizon bat Aldapeko sagarraren puntaren puntan txori baten txiruliruria entzun zuena.  
→ Gizon batek (behin) txori baten txiruliruria entzun zuen Aldapeko sagarraren adarraren puntan.

Erdarazko perpaus erlatiboen beste erabilera berezi baten kalko okerra ere badabil aspalditxoan gure testuetan, zehar-galdera ordeztu duena:

- \*Hark esango dizu egin behar duzuna.  
→ Hark esango dizu zer egin behar duzun.

Egitura berez zuzenen erabilera desegokiak izanik, axaletik atzemangaitzago dira halako kalko okerrak, bestelako erdarakada nabarmenagoen aldean. Oharkabea pasatzeko arriskua duten horietaz izango dugu hemen, bada, ardurarik handiena.

### 3. Nola identifikatu kalko okerrak

Nekez eman genezake metodo erabatekorik, baina bai jarraibide sorta bat, halako baten aurrean zalantzan dagoenaren lagungarri (seku-la zalantzarik ere sortzen ez zaiona okerrago dabil noski).

Erabiliko ditugun irizpideak aurreko azalpenetatik atera daitezke, eta, esan dugunez, *okertasun* horretan *zuzentasunari* eta *egokitasunari* buruz ditugun ideiak daude guztiz inplikaturik (*jatortasun* hitzak beldur pixka bat ematen du, baina, adiera sanoan, horixe da auzia), kasu partikular bat baino ez baita kalkoen ingurukoa.

Hain zuzen ere, euskarazko *akats* guztiak erdararen interferentziazkoak direla pentsa lezake –eta apika pentsatzen du– zenbaitek; eta, *guztiak* ez badi-ra, *asko eta asko* behintzat hala direla gutxik ukatuko du. Beste hizkuntza burujabe, beregainago batzuetan, erlatiboki txikiagoa izan liteke, edo ez hain larria, kanpoko eragin horren presioa, baina ez dago hizkuntzarik, ustez, *barbarismoetatik* guztiz libre dagoenik (ikus, esaterako, gure erdara nagusi biak berak nola dabilizan ingeles nagusiagoaren soinura dantzan).

Berriro diogu: zentzu bakarreko eragin guztiz desorekatuan daude arrisku larriak.

Oro har, nork bere buruari egin beharreko galderak dira jarraian doazenok. Bistakoa da modu sintetiko eta bizkorrago batean egiten dugun erabaki baten formalizazioa izan nahi duela gure honek, baina erabilgarria deritzogu irizpide funtsezkoen bat ahaztu ez dugula bermatzeko bederen. Irizpide eta galderok osa ere osa litezke, beharbada, edo bestela antolatu, baina ez dirudi bat bera ere albora uztekoa denik.

## Kalko Bahea

Bada kalko horren premiarik? Hots, hutsune bat betetzera dator?

Nolako premia?: kontzeptu berria, zehaztapena, ñabardura, sinonimia/konnotazioa, estiloa (maila, erregistroa, tonalitatea...)

Ez dago lehenetik horretarako esapiderik euskaraz (egin-egina zein moldatzekoa: hitz-elkarketaz, eratorpen-atzizkiz...)?

Ondo betetzen du bere eginkizuna sistemaz aldaturik? (Gaztelania edo frantses hutsa ez da?)

Erabilia da lehenago euskaraz? Noiztik, non, zenbateraino?

Kalkatzen hasita, ez daukagu eskura eredu hoberik beste erdarenen batean?

Bada arau, gomendio edo iruzkinik *autoritateren* batenik, alde nahiz kontra?

Beste norbaitek erabiliko balu, onartuko genuke? (Zorrotzago jokatu zeure buruarekin lagun hurkoarekin baino).

Ez diezaioket erakuts beste norbaiti testua, iritzia eman dezan? (Hobe hori, auzigai den puntua solte eztabaidatzea baino, teoriakeriaren arriskua saihesteko).

Egin dugu behar bezain luze eta ahalegin zintzoz aurreko bederatzir puntuon ibilbidea? Benetan aukerarik onena iruditzen zaigu? Ala apeta hutsa, *gogoak emana* besterik gabe?

Zoritxarrez, erdaren pisu eta lilura handiegia izaki, ez dugu beti horrela jokatzeko, hots, euskara bidezko baliabideei lehentasuna emanaz.

Larriagoa da erdara-biderako joera hori (edo izan daiteke, bederen, erne ibili eta neurriak hartu ezean) itzultzen dihardugun kasuan: hizkuntzaren beregaintasun eskasari eta norberaren elebitasunaren desorekari zor zaion parteaz gainera, hortxe daukagu aurrean erdarazko testu egina, geurea moldatzen dugun bitartean begi-belarriei tira eta tira.

Bistan da: jarrera aktiboa, kritikoa, eskatuko digu horrek kalko-arriskuen aurrean. Nahiago genuke bestelako egoeran bageunde, baina, gauden-gaudenean, ezin ditugu begiak itxi eta *espontaneitate* hutsaren baitan utzi guztia, ez kalkoen auzian eta ez bestetan (nagusiago eta burujabeago diren hizkuntzetan ere, ez pentsa, ez dira berez-berez *sortzen* testuak, *intuizio* hutsez: *ontzeko*, *landu* egin behar izaten dira beti). Paradoxa-itxuran esanda: *berezkotasuna bilatu* beharra egokituko zaigu askotan, hura galdukea denean.

Agian bihar-etzi lasaixeago joka genezake, baina guk orain hainbat buru-nekez egiten dugun bide estu samar honek ekarriko du, ekartzekotan, etorkizuneko gero eta zabalago izatea eta ibiltzeko erosoago: bidea zinezko bide bederen izatea dugu erantzukizuna.

Definizioan bertan ageri denez, sistema batek beste baten *egiturak* imitatzea da kalkoa (mailegua, berriz, *bitzak* diren-direnean ekartzea: «kortometrajea»). Premiarik eta egokitasunik gabe kalkatzen diren hizkuntza-egitura edo -antolaera horien mailaz mailako sailkapen bati jarraituz emango ditugu, bada, hemendik aurrerako azalpenak.

# Perpauk barneko elementuen kalkoak

## 1. Izen-sintagmaren esparrukoak

### 1.1. Izenak direla eta

- a) Izen soilaren esparruan kalkoak ez du arazorik sortzen. Tipikoagoa da izen nolabait *konposatu*en, elementu bat baino gehiagoz osatuen kalkoa, barne-osaera hori baita kalkatzen den egitura, zuzen zein oker.

Izenaren barne-sintaxi horretan (eratorpena, elkarketa...) dugu, beraz, kalko-iturri arriskua; baina, era berean, abantaila ere badu horrek, maila horretako kalko okerrak baitira, hain zuzen, agerikoen eta salatuenak: gramatiketan ageri dira halako kalkozko erabilera okerren salaketa eta haien zuzenketarako bideak.

Bada gurean, dena den, garbi salatu behar den joera makur bat: atzizki batzuei erdarazko beste atzizki batzuen ordaina ematea, osagai biak maileguzkoak direla axaletik disimulatuz (izenondo eratorri, atzizki bidezkoekin ere halatsuko jokabide ustela ibili da: -ble=-garri, -nte=-kor...):

- formación > formazioa (maileguz) > formakuntza (maileguz: formatu / kalkoz: -ción > -kuntza)

Kasu horretan, bestalde, bagenuen *prestakuntza* jatorra. Erdi euskarazkoak dira hauek ere: *elaboraketa*, *kombinaketa*, *errebortxamendu*, *manifestapen*, *diputapen*...

b) Osaketa garbirik gabeko izenekin ere izan daiteke noski auzirik (semantika ere sistema bat baita), baina hori ere hiztegiek argitzen edo argitu behar digute, kasuan kasu, hitz adina arrisku izan baitaiteke. Kasu batzuetan, barregarrikeria nabarmena eragiten du kalkoak (xelebreagorik ere bildu izan da):

- «planta (hormigonera)» > (inurri) landarea (!!)
- hirugarren landarean dago (!)

Lehen azalpenetatik esan dugu: aldatuz doaz etengabe hizkuntzak, eta premia berrietara egokituz. Horrek, jakina, ez digu eskurik ematen nahi duenak nahi duena egiteko. Kode-adostasuna da hizkuntzaren baldintza ezinbestekoa, eta horixe da, hitzen mailan, hiztegiek biltzen edo bildu behar dutena.

Tradizioaren ondarean zuzenean aurkitzen ez dugunaz behartzen garenean, berriz, tradizio horren oinarrietatik eta erabiltzaileen adostasunbidetik jo behar da, eta ez bakarka eta nolana hika: horixe da, hain zuzen, terminologia-lana. Lan hori ez dagokio, berez, testugile arruntari.

Haietara igortzen ditugu, bada, honen irakurleak: hiztegi orokor zein berezietara. Guk ez dugu hor beste zer esanik.

## 1.2. *Bat ala -a?* (*batzuk ala -ak?*)

Determinanteen erabilera aski desberdina da hizkuntza batetik bestera, are enbor berekoak direnen artean ere. Euskara egituraz inguruko erdaretatik hain berezia izanik, garbi dago ezingo direla halakoak automatikoki kalkatu batetik bestera.

Erdararekiko alde hori guztiz mugatzea zaila da oso, baina kalko okerra saihesteko aski da euskarazko usadio arruntaren berri izatea eta noski erdarazko egiturak, itzulpenean zein bestela, euskaraz nahitaez berdin ematekoak ez direla jakitea.

Bestalde, hasieratik garbi utzi behar da badela euskaraz usadio bat baino gehiago halakoetan, eta euskalkiz eta bestez banatuak daudela erabilerok. Hain zuzen ere, ezin dira erdarakadatzat gaitzetsi zenbait

molde eta joera, inoiz erdararenekin bat datozelako, besterik gabe. Zailtasun hori eta guzti, hala ere, mendebaleko erabilera jakin baten ereduari jarraituko zaio hemen, estandarerrako adostasunik handiena biltzen duelakoan.

Oro har, bada, hona bereizgarri batzuk (egoki deritzogun ereduaren aurkakoeak daramate izartxoak):

### 1.2.1. '-a(k)' mugatzailearen erabilera

Besteak beste, eta nabarmen eta ospetsuenik, badu euskarak, inguruko erdaren aldean, *-a(k)* mugatzaile edo artikulua erabiltzeko joera erabatekoa, erdarok mugatzaileak gabeko forma (ezer ez, alegia) nahiz zehaztugabea (*artikulu indeterminatua*) darabilten lekuan:

a) Aipamen hutsa denean:

- Izena, partaideak.
- Ikusi: zaldia!, Hara! Hegazkina.

b) Atributuen numero-komunztadura denean (*izan* aditzarekin):

- Etxea(k) txikia(k) d(ir)a.
- Ni gizakia naiz.
- Zu tontoa / tonto hutsa zara. (\*Zu tonto bat zara.)<sup>1</sup>
- Lapurrak dira, gero. / Lapur galantak dira. (\*Lapur batzuk dira.)

c) *Nolakotasunarekin* (eta bereziki balioespen-enfasiarekin) loturikoetan:

- Egundoko beldurra izan nuen (\*Beldur bat izan nuen!)
- Zer/bai mutil ederra!
- Zein(en)/zer argia (den) neska(!)
- Gau ederra atzokoa!
- A zer-nolako zarata atera duzuen! (\*Zarata bat atera duzue!!)
- Garai ona da lanean hasteko. (\*Garai on bat da...)

---

<sup>1</sup> Honelakoetan izartxoak (\*) darabilgunean, ez dugu adierazi nahi, nahitaez, esaldia agramatikala denik edo hizkera batzuetan erabiltzen ez denik, baizik eta hemen proposatzen den ereduaren aurka doala, besterik gabe.



(«Zer/Zein(en) tuntun(?)» arruntaren mugagabetasuna hausteraino doa joera, bistan denez: «Nolako tuntuna(!)» moldera bilduz: «Zein(en) tuntun(a)!»).

d) *Egon* eta *eduki* aditzekin, tradizio biak dabilta lehia (eredu zaharra mugagabearen aldekoa da, nahiz erdialdeko euskalkietako oraingo erabileran mugatua erabat nagusitu):

- **Txiki** dauzkazu oinetakoak / **Txikiak** dauzkazu oinetakoak.
- **Berde** daude sagarrak / **Berdeak** daude sagarrak.
- **Zikin(a)** dago/daukazu gela.

Hala ere, joera horren salbuespen dira kasuok:

*Izan* aditzarekin berarekin ere, ez dago inolako debekurik, esaterako, mugatzailerik gabe joan daitezen zenbait atributu: gomendagarri ere gerta daiteke, batzuetan, halakoetara jotzea, anbiguotasunak saihesteko:

- Atzerritarrak dira langile. / Atzerritarrak dira langileak (anbigua).

Bestelako atributuetako batzuetan, berriz, sobera dago, berez, -a(k) mugatzailea (izen soilak direnean bederen):

- **Ipotx** bihurtu zen. (\***Ipotx bat** / **ipotxa** bihurtu zen.)  
(Aztiak gizagaixoa ipotx bihurtu zuen.)
- Okindegia bat ere gerta daiteke **monopolio**.  
(\*Okindegia bat ere gerta daiteke **monopolio bat** / **monopolioa**.)

### 1.2.2. 'Bat' zehaztugabearen erabilera

*Bat* erabiltzeko joera du euskarak, eta horretan ez da berezia, diskurtsoan berri diren erreferenteak –istorioren bat kontatzen hasten garenean eta– aurkezteko molde arruntean.

- «Behin batez, herri txiki batean, zapatari txiki **bat** bizi zen, ilarraren tamainako seme **bat** zuena. (...)»

### 1.2.3. '-a(k)' zein bat zilegi diren kasuak

Usadioa usadio, *bi formak dira zilegi* zenbaitetan: zer adierazi nahi den da kontua. *Bat* ustelen gehiegikeriaren aurkako jarrera bultzatu da aspaldion, egoki zen moduan, baina arriskua ere ekarri du horrek kontrako gehiegikerian erortzeko. Honatx kasu batzuk:

#### a) Determinatzailearen funtzioa:

Nola behar du: «aulki txiki **bat** (erosi dute)» ala «aulki txikia (erosi dute)»?

Bada, biak dira zilegi, zer adierazi nahi den:

- «*Zer* (erosi duten)» nagusitzea: «Aulki txiki **bat** erosi dute».
- «*Zein* aulki (erosi duten)» nagusitzea: «Aulki txikia erosi dute» [= «Aulkien artean txikiena erosi dute»].
- «*Nolako* aulkia (erosi duten)» nagusitzea: «Aulki txikia erosi dute» [= «Txikia da erosi duten aulkia»].

(Bigarren eta hirugarren moldeek forma bera dutenez, testuinguruak esango du zein den kasuan kasuko interpretazio zuzena.)

*Nolako* balioespenezkoarekin doan *-a* hori agertzea, bada, enfasiarekin loturik egoten da askotan (izenondoak darama zama):

- Aulki txikia erosi dute, alajaina! (= Txikia, alajaina, erosi duten aulkia!)

#### b) Mugatzaile singularraren balio generikoa:

Zalantzak eragiten dituen beste egitura tipikoa mugatzaileak zentzu generikoa hartzen dueneko da; mugatzailearen zentzu zehaztailearekin borrokan dago, baina guztiz bere du zentzu hori ere mugatzaileak. Hona hemen bikoiztasun horren adibideak:

- «Han comprado un coche.» = **Auto bat** / **autoa** erosi dute.
- «Han comprado coche.» = **Autoa** erosi dute.
- «Han comprado el coche.» = **Autoa** erosi dute.

Jakina, zilegi da «autoa» hori balio generikoz erabiltzea, baina ardura hartu behar da orduan testuinguruak argitu dezan adiera

egokia, irakurri ahala. Hori ezinezkoa bada, aurrekoa bezain zilegia (eta askotan zuhurragoa) ere izango da inolaz ere debekatuta ez dauden honelakoez baliatzea:

- Auto **bat** erosi dute.
- Hitzarmen **bat** sinatu dugu.

Esanak esan, beraz, bi formak zilegi diren kasuetan zalantza sortuz gero, tradizio nagusiko erabilera estandarrean, egoki da, aukeran, *-a* lehenestea, baina (eta honexek du garrantzia) *ondo konprobaturik ez dela zentzua aldatzen* edo nahasten testuinguru jakin horretan. Bestela, edo *bat* erabili, edo beste molde bat bilatu esanahia argi emateko.

c) Mugatzaile pluralaren balio zehaztugabea:

Aurreko ataltxoan testuingurua aipatu dugu, oro har, baina zehaztu litezke, joera modura (oso konplexuak dira halako joko semantiko-pragmatikoak, eta ez beti gramatika hutsarekin lotuak), zenbait alderdi gramatikalek halako anbiguotasunak semantikoki ebazteko orduan duten garrantzia. Adizkien aspektu delakoak, batetik:

- Ipuinak **irakurtzen** ditu [ipuin zehaztugabeak, normalean; erdaraz: «cuentos»].
- Ipuinak **irakurri** ditu [ipuin jakinak direla aise interpreta daiteke; erdaraz: «cuentos» nahiz «los cuentos»].
- Ipuinak **irakurtzen** ari da [aurrekoa bezala].

(Beraz, aspektu-aukera horiek baimentzen edo errazten diote -ak mugatzaileari interpretazio zehaztugabea).

Eta, bestetik, eta apika erabakigarrienik, izen-sintagma mugatua galdegai ez izateak eragiten duen ondorioa:

- (Berak) **irakurtzen** ditu ipuinak [ipuin zehatzak («los cuentos»)/? zehaztugabeak («cuentos»)].
- (Berak) **irakurri** ditu ipuinak [ipuin zehatzak/?? zehaztugabeak].

(Alegia, izen-sintagma galdegai izan ezean, oro har, ez dirudi *-ak* mugatzaileak zentzu zehaztugabea hartzen duenik).

Bestalde, absolutibotik kanpo, debeku da, oro har, adiera zehaztugabea (erdaraz artikulua gabe ematen dena), pluralean zein singularrean:

- Begiratu bat eman die ipuinei [ipuin zehatzak («a los cuentos»)].
- Ipuinei eman die begiratu bat [ipuin zehatzak].
- Beti mintzatzen dira etxeaz [etxe zehatza (interpretazio generikoa barne)].
- Etxeaz mintzatzen dira beti [aurrekoa bezala].

Azken atal hau laburbilduz, bada, hona zer baldintza bete behar dituen izen-sintagma arrunt batek, oro har, zentzu zehaztugabea emanaz mugatzaile hori jotzea egoki izan dadin (*Nolakotasuna* nagusitzen den kasua alde batera utzita):

- a) absolutiboan egotea +
- b) galdegai izatea +
- c) esanahiak adiera zehaztugabe hori onartzea +
- d) testuinguruak beste zentzu bat ez ematea.

Baldintza horietan, bada, baina ez bestela, *-a(k)* mugatzailea hobesten dugu *bat(zuk)*en aldean.

### 1.3. Erdaraz izenaren aurretik doazen adjektiboen euskal ordainak

#### 1.3.1. Azalpen orokorra

Inguruko erdaretan (gaztelaniaz zein frantsesez, baina ez hala ingelesez), sistematikoki mugikorra da adjektiboaren kokagunea. Oinarrian, izenaren ondorengo lekua dagokio, euskaraz bezala (euskaraz, hain zuzen, *izenondo* ere esaten zaio), baina izenaren ezkerretara ere mugi daiteke erdaraz. Eta izenaren aurrera mugitzeak aldaera semantikoa dakar askotan berekin.

Hiru sailetan bana daitezke halako kasuak:

- a) *Erabatekoa* da esanahi-aldiera:

- Un hombre **pobre** (txiroa) / Un **pobre** hombre (gizagaixoa)
- (ni un) **triste** mendrugo (bakar bat ere ez)
- (mostró su) **olímpico** desprecio (argi eta garbia)

Parentesi artekoak adierazten du horiei euskaraz zein soluziobide dagokien: lexiko mailakoa.

b) *Enfasi mailakoa* da aldea (*nolako* → *nolako!!*):

- **grandes** cambios (=cambios *muy* grandes)
- **fuertes** vientos (=vientos *bastante* fuertes)

Graduatzaileen bidez eta bestelakoz konpon daitezke halakoak euskaraz. Enfasiaz ohartu eta hura balioestea da gakoa:

- aldaketa **latzak** («handiak» baino enfatikoago)
- haize indartsuak > **gogor/zakar samarrak** > **gogor/zakarrak** > **gogor-gogorrak**...
- **sekulako** merkealdia («beherapen handiak» baino hobeto noski)
- aukera **handiak** > aukera **izugarriak/egundokoak/galantak**...

c) Adjektiboaren beraren esanahia aldatzen ez bada ere (enfasi apur bat bederen izaten du gehienetan, haatik, aurretik emanak), *esaldiaren esanahia aldatu egiten da*. Molde honetakoek sortzen dute arazo handiena.

- Vimos la iglesia **pequeña**. (← la iglesia que era **pequeña**: *zein*.)
- Vimos la **pequeña** iglesia. (← la iglesia, (que era) **pequeña**: *nolakoa*.)
- Se fue por el camino **estrecho** (*zein*).
- Se fue por el **estrecho** camino (*nolakoa*).<sup>2</sup>

<sup>2</sup> Kokagunarekin jokatzu lortzen den joko orokor hori bestela erabil daiteke, eta erabili ohi da, poesian eta, oposizioa neutralizatuz:

- la nieve blanca (← la blanca nieve)
- tu pupila verde (← tu verde pupila)

Jakina, euskarazko izenondo-kokagune bakarrak berdin biltzen ditu adiera biak, arazorik gabe testuinguru arruntetan:

- elur zuria [ez da irudikatzen bestelako elurrik denik]
- zure begi-nini berdea [bestela uler liteke, zentzu zehaztailean, bakoitza kolore batekoa balitu norbaitek begiak; pluralean nekezago, jakina: «zure begi nabarrak»]

Halako izenondoen jokoan, garbi bereizi behar dira IS mugatuak eta mugagabeak, mugatueta bakarrik gertatzen baita auzia:

1. Artikulu *mugagabe*arekin (eta mugagabeekin, oro har) ez dago arazorik euskaraz emateko orduan, esanahi bertsua baitute erdarazko biek (enfasia gorabehera):

- un **estrecho** camino = un camino **estrecho**
- cualquier **libre** movimiento = cualquier movimiento **libre**
- muchas **buenas** carreteras (de Suiza) = muchas carreteras **buenas** (de Suiza)

2. Izen-sintagma *mugatua* baldin bada, esanahi zehaztailea (*zeini* dagokiona) ez nagusitzeko, hainbat bide ditugu aukeran (esana dugu ez dela beti beharrezkoa, semantikoki garbi egon baitaiteke, testuinguruan, gramatikalki berez anbigua dena):

2.1. Euskarak balio enfatikoa emateko dituen bideetatik abiatzea (*nolakotasuna* nabarmentzeak *zein* adiera zehaztailea eragotzen du):

- bide estu-estutik
- bide guztiz/hain... estutik
- bide estu asko/samarretik

2.2. Interpretazio zehaztailea (*zein* eliza) eragotziko duen ize-nondoren bat aukeratzea:

- Eliza koxkorra ikusi genuen [txikia nahasgarriaren ordezt].

2.3. Mugatzailearen partez erakusleren bat erabiltzea:

- Eliza txiki **hura** ikusi genuen.
- Bide estu(-estu) **hartatik** joan zen.

2.4. Esaldi osoa bi zatitan ematea:

- Eliza ikusi genuen: txikia zen oso.
- Bazen eliza txiki bat, eta bisita egin genion.
- Eliza ikusi genuen, (zeina) estu-estua baitzen.

### 1.3.2. *Izenondo batzuen erabilera ustela*

Izenaren aurrera mugituriko erdal adjektiboen esanahia era askotara aldatzen delarik, badira halako batzuk kalifikaziotik kuantifikaziora (edo haren enfasira) lerratzen direnak:

- (ni) un **triste** soldado [(ezta) soldadu **bakar** bat ere]
- un **nuevo** ataque [beste eraso bat]

Halakoak zenbat diren esaten zaila da, baina erraz ikus liteke ez direla bi adibide horienak kasu bakarrak:

- en lugares **distintos** [toki desberdinetan] / en **distintos** lugares [hainbat tokitan]
- una firma **simple** / una **simple** firma
- unas llaves **simples** (giltza sinple batzuk) / unas **simples** llaves (giltza batzuk besterik ez)

Jakina, anbigutasun tipikoa sortuko genuke egitura bera erabiliz gero bietarako:

- ???giltza **soil** batzuk [konplikatuak ez diren giltza batzuk / giltza batzuk besterik ez]

Bide egokia, beraz, izenondoaren berezko adierari eustea da, hots, ez ematea euskarazkoari erdarazko bereziak (izenaren aurrera mugituak) duen zentzua, oinarritzkoa baizik (llave simple = giltza soil/simple). Askotan, bada, goiko adibideetan ikusi dugunez, erdarazko izenondo-erabilera bereziari dagokiona ez da izango, euskaraz, ez izenondo hori eta ez beste izenondo bat ere, beste joskera molde bat baizik:

- una(s) **simple(s)** llave(s) = bat(zuk) besterik ez

Atal honetan, halakoetatik zabalduen eta arazotsuenak jorratzen ahaleginduko gara. Erne ibili beharra dago, hala ere, aski sistematikoa baita prozedura hori erdaraz.

#### 1.3.2.1. *Berri*

Testuinguru narratiboetan agertzen da arazoa bereziki:

- \*Kolpe **berri** bat eman zion.
- \*Korner **berri** bat Realarentzat.

Hitzaren semantikaren joko batetik dator nahastea. «Un golpe **nuevo**» guztiz barregarria da erdaraz ere (non eta ez garen ari boxeolariren batek edo asmatu-rikoko kolpe zinez *berri* –orain artekoak ez bezalako– batez, jakina), baina «un **nuevo** golpe» moldeak bestelako adiera bat hartzen du: kuantifikazio-adiera.

Euskaraz, baina, eta beste hainbat hizkuntzatan, ez da egokia horrela ematea adiera hori. *Berri* izenondoak *zabar* izenondoaren antonimo izan behar du, beti izan den moduan (*zabar* hori *antigoaleko*, *antzinako*, *aspaldiko* zein *lebengo* izan). Beraz:

- \*Aukera berri bat / berria eman dio.
  - *Beste* aukera *bat* eman dio.
  - *Berriro* aukera eman dio.
  - Aukera eman dio *ostera* ere.

Hona ikasmaterialetatik jasotako zenbait adibide:

- \*Tanto *berri* bat egin dute.
  - *Beste* tanto *bat* egin dute.
  - *Ostera* ere tanto (egin dute).
- \*Euri *berriak* ekarriko ditu ekaitzak.
  - *Berriz* ere euria(k) ekarriko d(it)u ekaitzak.
  - Euri *gehiago* ekarriko d(it)u ekaitzak.
- \*Saguari klik eginda, ariketa *berria* aterako zaizu.
  - Saguari klik eginda, *beste* ariketa *bat* aterako zaizu.

Azken adibide horretan, jakina, zuzenak izan litezke «ariketa berria atera» zein «ariketa berri bat atera» esapideak, baina, betiere, «lehenkoa ez bezalako» esan nahi luke «berri»k, eta ez «beste bat» (gogoratu zentzu hori ematen diogula hemen izartxoari). Ikusten denez, kalkoa *kamuflatu* egin nahi izaten da batzuetan, *baten* ordean mugatzailera erabiliz, baina horrek ez du deus konpontzen, bistan da.

### 1.3.2.2. *Desberdin, ezberdin, diferent(e)*

Gaztelaniatik datorkigunez gehienbat uholdea, hartara jo dezagun azalbiderako.



Gaztelaniaz, *diferente* adjektiboa (eta berdin haren sinonimoak: *distinto, diverso...*) guztiz zentzu berezi bitan erabiltzen da gaur egun pluralean eta –halako zentzu aldaketetan tipikoa denez– dagokion izenaren aurrean badoa.

Hiru erabilera bereizten dira, adjektiboaren kokagunea zein den eta izen-sintagma nolakoa:

a) Kokagune normala (izenaren atzetik):

- Son casas diferentes ↔ Etxe desberdinak dira.
- Vivían en pueblos diferentes ↔ Herri ezberdinetan bizi ziren.  
[*beren artean desberdin* nahiz *besterekiko desberdin*, berezko baitu anbiguotasun hori izenondoak, erdaraz zein euskaraz.]

Horixe da euskaraz horrela ematekoa den bakarra (*desberdin/ezberdin = bestelako*). Hurrengo biak ez dira *desberdin/ezberdin* erabiliz ematekoak.

b) Kokagune berezia (izenaren aurretik):

1. Izen-sintagma mugagabea (mugagabe absolutua, zenbatzaile-rik-edo gabea):

- diferentes casas, diversos autores, diferentes actividades
- Vivían en diferentes pueblos (en *varios* pueblos).

2. Izen-sintagma mugatua:

- las diferentes (distintas, diversas) lecciones
- los diversos espacios publicitarios
- Vivían en los diferentes pueblos [en (*todos y cada uno de*) los pueblos].

*Bigarren moldekoek* (mugatu plurala), berez, ez dute arazo handirik sortzen: gehienetan, *batere ez markatzea* da irtenbidea, *ikasgaiak* dioenak *ikasgai guztiak* baitio, enfasia gorabehera.

Enfasi horretaz behartuko bagina, berriz (*todas y cada una* itzultzeko, esate baterako, baina hori zeharka baino ez da adierazten *las diferentes* erabilita...), *guzti-guztiak, den-denak, -ak oro* esplizita liteke, edo beste bideren bat saiatu: *ez da teoriarik, ... ez duenik*.

*Lehenengo moldekoak* geratzen dira, beraz (mugagabe plurala: ez da halakorik euskaraz!). Nola eman, orduan, halakoak, «desberdin/ezberdin» erabili gabe? Bada, adjektibo ustela bazterturik, euskarazko kuantifikatzaile arrunt batez. Esaldian-esaldian ikusi beharko da zein alternatiba eman *desberdin* usteloi, ez baitago ematerik formula automatikorik, eta aukera bat baino gehiago egon baitaiteke lehian: *zenbaitetik hainbateraino* doan esparruko hitzak, *bat baino gehiago*, *hiruzpalau* eta beste asko barne.

Batzuetan, esaldi osoa beste ikuspuntu batetik ematea izango da egokiena, zenbatzailerik ere gabe.

Honatx testu-liburuetatik jasotako adibide andana bat, sail bietakoak, eta okerron zuzenketarako hainbat bide:

## 1. *Lehenengo moldekoak*:

1.1. zenbait, asko/anitz, hainbat, batzuk... («desberdin» horren azpiko gutxi gorabeherako kopurua kasuan-kasuan interpreta-tuz)

- \**Denda desberdinetan* galdetzen hasi zen.  
→ *Zenbait dendatan / Denda batzuetan / Denda askotan / Anitz dendatan / Hainbat dendatan...*
- \**Komunikabide ezberdinetan* agertu da hori.  
→ *Hainbat komunikabidetan... / Zenbait komunikabidetan... / Komunikabide batzuetan...*
- \*... euskaraz bizitzeko *soluziobide ezberdinak* eskaintzen dizkizu.  
→ ... *hainbat irtenbide/soluzio* eskaintzen dizkizu.

1.2. askotariko, era askotako, denetariko...

- \*Ezagerak eskuratzeko *modu diferenteak* erabiltzen ditugu.  
→ Ezagerak eskuratzeko *askotariko moduak* erabiltzen ditugu.
- \**Eduki ezberdinak* egon daitezke: ariketak, ikerketak, datuak, grafikoak, etab.  
→ *Askotarikoak* izan daitezke *edukiak*: ariketak...
- \*Eta *era desberdineko* animaliak irtengo dira sarepetik.  
→ Eta *era askotako* animaliak irtengo dira sarepetik.

- \*Sarea zabaltzean, *gauza ezberdinak* libratuko dira sarepetik: animaliak eta landareak, batez ere.  
→ Sarea zabaltzean, *denetariko gauzak* libratuko dira sarepetik: animaliak eta landareak, batez ere.
- \**Iritzi ezberdinak* daude.  
→ Badira/badaude *era guztietako/askota(ri)ko iritziak...*

### 1.3. bat baino gehiago

- \*Morfemen eraginez edo testuinguruaren arabera, hitzek *kategoria desberdinak* izan ditzakete.  
→ Morfemen..., hitzek *kategoria bat baino gehiago...*
- \*Neurketak errepikatzea komeni da erroreak murrizteko. Eta horretarako *tresna desberdinak* erabiltzen badira...  
→ Neurketak... Eta horretarako *tresna bat baino gehiago* erabiltzen...

### 1.4. era bateko edo besteko, zeinek bere

- \**Mota desberdine(ta)ko itemak*  
→ *Era bateko edo besteko / zeinek bere itemak* dituzten jarduera idatziak dira.

## 2. Bigarren moldekoak:

### 2.1. bakoitza

- \**Komunikazio-egoera ezberdinei* dagokien egokitasunez hitz egitea.  
→ *Komunikazio-egoera bakoitzari* dagokion...
- \**Talde ezberdinek* erantzun ezberdinak emango dituzte.  
→ *Talde bakoitzak* erantzun ezberdina emango du.
- \*... egin behar dugu lan hurrekin, aniztasuna onartuz eta gaitasun eta *ezaugarri fisiko eta psikiko desberdinak* errespetatuz.  
→ ... onartuz, eta *bakoitzaren gaitasun eta ezaugarri fisikoak...*
- \*Nukleido deritze naturan dauden edo artifizialki ekoitz daitezkeen *nukleo atomiko desberdinei*.  
→ Nukleido deritzo naturan dagoen edo artifizialki ekoitz daitezkeen *nukleo atomiko bakoitzari*.

## 2.2. 'Ø'

- \*Animalien eta landareen elikatzeko *modu desberdinak*.  
→ Animalien eta landareen elikatzeko *moduak*.
- \*Nukleido deritze naturan dauden edo artifizialki ekoitz daitezkeen *nukleo atomiko desberdinei*.  
→ Nukleido deritze naturan dauden edo artifizialki ekoitz daitezkeen *nukleo atomikoei*.
- \*22 *nazio desberdinetako* haurrak daude.  
→ 22 *naziotako* haurrak daude.
- \*Erasoa antolatzeke orduan baloia hartzeko *era desberdinen* diferentziak.  
→ Erasoa antolatzeke orduan baloia hartzeko *eren arteko* diferentziak/aldeak/desberdintasunak.

### 1.3.2.3. *Leben*

Badira adjektiboaren *kokagunearekin zerikusirik* ez duten beste erabile-ra kalkatu batzuk ere. Horietako bat erruz ari zaigu sartzen, gainera, publizitatetik-eta bereziki, azken urteotan: *leben* hitza *nagusi, gailen, salduen, onen, lider... number one* zentzuan erabiltzea, kasurako. Eta ez dirudi jokamolde egokia, bestelako esapideak aukeran ditugula.

Kalkoaren prozedura bista-bistakoa da: denboran *leben* izatetik hierarkian *leben* (nagusi, besteen *aurretiko*) izatera lerratzen da zentzua:

- \**Leben* markak bakarrik saltzen ditugu  
→ Markarik onenak bakarrik saltzen ditugu.  
Punta-puntako markak bakarrik saltzen ditugu.  
Markakoak, gero, X markarenak.
- \**Lebenak* etxetresna kontuan!  
→ Etxetresna kontuan, jaun eta jabe.

Adierazgarria da nola, esanahi arruntetik berezi horretara aldendu gara markatzeko, kokagune-aldaketaz baliatu den euskara ere, halakotara jo izan duenean:

- nagusi *leben*

Bitxi samarrak gertatzen dira, hala ere, gaurko euskarari, halakoak eta antzekoak («andre gehien»...).

#### 1.4. Ez + handiegirik/ez + gehiegi(rik)

Aurreko adjektiboen kasuan, adjektiboaren lekuz aldatzeak kalifikaziotik nolabaiteko kuantifikaziora lerratzen du zentzua (1.3.2.3. epigrafean izan ezik): *diferentes=varios*. Beste adjektibo bat aipatu behar dugu orain, kokagune-aldaketarik gabe ere zenbatzaile-zentzu hori duena: *demasiado* (aldaera dotorea: *excesivo*).

Erdaraz –gaztelaniaz zein frantsesez–, desbideratze estilistiko bat gertatu da adjektibo horren semantikan: *demasiado(s)=mucho(s)*. Hiztunak hain bihurtu dira horren zale, non erabilera berriak ia erabat jan dion lekua arruntari:

- No tengo **much**a(s) gana(s). > No tengo *demasiada*(s) gana(s).

Molde hori kalkatzetik dator okerra:

- \*Ez dut gogo/liburu *gebiegi*. (> Ez dut gogo handirik / liburu askorik.)
- \*Ez zuen kezka handiegirik/*gebiegi*(rik) horretaz. (Ez zuen kezka handirik horretaz).
- \*Ez naiz trebeegia > Ez naiz *oso* trebea.
- \*Bisigodoen sarrerak ez zien aldaketa *handiegirik* ekarri. > ...*handirik* ekarri.

Ondo dago «*gebiegi* (hots, behar baino gehiago, egoki den neurritik gora) ez kezkatzea», baina ez da hori esan nahi hor. Oraintsu arte, bestelako moduak erabili ditu euskarak:

- Ez zuen kezka **handirik** horretaz (kez karen neurria).
- Ez zuen kezka **askorik** horretaz (kezken kopurua).

Jakina, zenbaitetan, eman nahi zaion zentzuak du gakoa:

- a) \*Indar *handiegirik* gabe jo zuen pilota [kalkoa, Indar handirik gabe esan nahi denean].
  - b) Indar handiegirik gabe jo zuen pilota [egoki, beraz, bestela pasatu egingo baitzen].
  - c) Indar handirik gabe jo zuen pilota [indar gutxitxorekin, aukeran].
- 
- a') Ez du (gauza/ezer) askorik jan / Gutxitxo jan du (\*Ez du (gauza) *gebiegi*(rik) jan).
  - b') Ez du *gebiegi* jan (tamainan baizik, digestio astunegia ez eragiteko moduan).

Kontu bera gertatzen da sarri *gebiegi* (= *demasiado*) aditzondoarekin berarekin ere:

- \*Ez dut *gebiegi* ulertu. > Ez dut **gauza handirik/askorik** ulertu.
- \*Etxeko lanak egitea ez zait *gebiegi* gustatzen. > ...ez zait **asko(rik)** gustatzen.

Oro har, bada, aholku bakar bati jaramon egitea aski da: berezko, oinarrizko zentzuari eutsi (eta kalko itsuan erori gabe eman erdarazko berezian beste zentzuak).

### 1.5. Kopurua/kantitatea/neurria («zazpi lan», «lana franko», «lan handia»)

Gramatika modernoetan oso erabilia da [ + *zenbakarri* ] / [ - *zenbakarri* ] ezaugarria izen arruntak sailkatzeko orduan. Baina kontzeptu-banaketa hori ez da beti erabakigarria gertatzen, izen berak *adiera* zenbakarria zein zenbakaitza izan baitezake askotan: *lan* hitz arruntak, kasurako:

- Lan **asko** egin d(it)u horrek. (=hainbat lan)
- Lan **handia** egin du horrek. (=lan bakarra, handia)

Zehaztu ditzagun, hortaz, kontuak:

a) Batetik, adiera *zenbakaitz* garbia duten hitzak ditugu. Esate baterako, sentipenak eta kontzeptuak, oro har, ez dira fisikoki zuzenean neurgarri, eta horregatik zaie berez egokiago beren *kalitate edo graduz deskribatzea [mola(ko)] eta ez kopuruz zein kantitatez [zenbat(eko)]*. Horiekin adjektiboz baliaturiko bidea da berezkoena eta egokiena aukeran:

- \*Lotsa *asko* pasatu genuen  
→ Lotsa **handia/ederra/gorria/galanta** pasatu genuen
- \*Pazientzia/indar/lan... *asko*  
→ Pazientzia/indar/lan...**handia**

(Kasuan kasuko adjektiboa aukeratu behar da, bistan denez: «denbora luzea», «egundoko zortea»...).

Halako hitzekin erne ibili beharra dago, beraz, erdarazko singularreko *mucho/a*, eta *más* moldeak ez kalkatzeko: alegia, horien

ordainak automatikoki zenbatzailez emateko arriskutik ihes egin behar da.

Aipa dezagun, dena dela, *nola(ko)*ren ordezeko *zenbat(eko)* horren kontulari-joerak euskarari aspaldi zabaldu zituela bere erroak, berezkoagoekiko lehian (erregistroak erregistro):

- Asko maite zuen. / Oso, biziki... maite zuen.
- ?Gehiago maite du. / Maiteago du.
- \*Maitasun gehiago zion. / Maitasun handiagoa zion. Maiteago zuen.

b) Bestetik, adiera *zenbakarria* duten hitzak ditugu (*zenbat* da horien galdera inplizitua). *Zenbat* hori, ordea, bi adieratan uler daiteke:

1. Zenbakarri diren unitateen *kopuru* moduan, eta orduan adierak ez du zalantzarik:

- **Bost/hainbat** gudari etorri dira.
- **Hiru/zenbait** lan ditu aukeran.

2. Unitatetan banatu gabeko zer baten *kantitate* moduan.

- Aire/ur/lan/kalte/leku... **asko/gutxi/dezente...**

Azken molde honetakook sortzen dute arazoa, beren mugagabeta-sunean izugarri anbiguoak gertatzen baitira. *Lan asko* sintagma, esate baterako, kopuru/kantitate adierari dagokionez, bi modutara har daiteke («lan asko (daude/dago egiteko)», «askotariko lanak» / «lan luze-handia»). Gisa berean dira anbiguo *indar asko* eta antzekoak («?Indar asko du horrek» esapidea ontzat hartzen badugu, behintzat, «Indar handia du horrek» esapidearen sinonimotzat).

Egia da aditzaren pluralak –testuinguruak ere askotan argitzen du formalki argi ez dagoena– ebazten duela batzuetan auzia:

- Lan asko (egiten) ditu. [kopurua]
- Lan asko (egiten) du. [kantitatea]

Baina ez beti, noski. Nola jokatu, bada?

Halako hitz anbiguoekin, kopuru-adiera eragozteko joskera berezietara jotzea da biderik egokiena:

- Lana franko/erruz/dezente/poliki/... egitea zen kontua.

Baina gehiegikeriaren arriskua ere saihestu behar da, eta sistemaren nolabaiteko hibridotasuna —edo sokatira— onartu. Kasurako, «indar asko» (→indar handia) zuzentzekoa da, gure ustez, adiera zenbakaitzean, baina «indar gehiago/gehiegia» zuzentzat dauzkagu (→indar handiagoa/handiegia).

Eta, simetriak simetria, «indar/gogo/pazientzia gutxi» (= indar /gogo/pazientzia eskasa) esapideak ere ez du «indar/gogo/pazientzia asko» sasikoaren okertasunik, inondik ere («gogo txikia daukate» eta tankerakoek zaharkitu-kutsua dute).

Ez da erraza esaten, bada, non dagoen egokitasunaren muga zehatz-zehatza, baina nabarmenetan behintzat zorrotz samar jokatzea komeni da.

## 1.6. Numero gramatikalaren gorabehera (mugagabea singular-pluralekiko)

### 1.6.1. *Absolutiboa ez besteko kasu pluralen adiera mugatua*

Gaztelaniak eta frantsesak lau aukera dituzte, zenbatzailerik-eta erabiltzen ez dutenean, determinazioari eta numero gramatikalaren konbinazioari dagokionez, hots, artikulua erabileraz. Lau aukerok, honela bana daitezke:

- determinatu singularra / determinatu plurala
- indeterminatu singularra / indeterminatu plurala

Gaztelaniazko adibidez emanik (frantsesez partitiboa genuke mugabeetan):

- el elefante / los elefantes
- elefante / elefantes

Euskarazko sisteman, berriz, hiru bide formal baino ez daude esanahiok emateko, mugagabeak ez baitu markatzen singular/pluraltasunik. Hizkuntza bakoitzak du bere sistema (asko dira munduan, esate baterako, artikulurik gabeko hizkuntzak), eta euskarazkoa ere ez da horregatik eskasagoa nahi dena adierazteko, baina erne ibili beharra dago erdarazko esapide batzuekiko baliokide egokiak aukeratzeko orduan. Determinatuen saila berdin banatua da:

- elefantea/elefanteak



Baina determinatugabeak (gure *mugagabeak*) ez du bereizten singular-pluralik, eta zenbatzailearen bat edo behar du, oro har, izen-sintagma osatzeko):

- X elefante [X=hainbat, edozein, hiru, bat, asko...]

Jakina, bereizkuntzarik eza zenbaitetan ez da oztopo:

a) zenbatzaileak argitzen baitu zentzua:

- hiru elefante / elefante asko /hainbat elefante /elefante bat/batzuk

b) edo aditzak:

- zein elefante (ikusi duzu/dituzu)?

Kasuotatik kanpo, ordea, hor dirau auziak, itzultzeko orduan bereziki:

a) Nola eman erdarazko artikulugabe singularra? Gehienetan, zentzu generikoa emanez mugatzaileari, formalki mugatu singularra ematen dugu:

- pan  
→ *ogia* [«el pan» = «pan»]

b) Nola eman erdarazko mugagabe plurala? Hor ere, absolutiboan bederen, eta galdegai-kokagunean bereziki, mugatzailearen erabilera zehaztugabea da nagusi, anbiguotasun eta guzti:

- *haurrak* zaintzen ditu, «*loreak* bildu ditu» [«las flores» = «flores»]

Singularrak ez bezala, ordea, badu erdarazko pluralak, plurala izateagatik, batere zehaztu gabeko zenbatzaile baten antzik ere erabilera batzuetan. Subjektuen kasuan, nagusiki, kazetaritzako estilo bereziari dagokio erabilera hori, eta biziduntzat irudikatuak izan behar dute subjektuok. Osagarri zuzenen kasuan, berriz, oso ohikoa da, eta aditz askok dute joera halako sintagma mugagabe eta aldi berean zenbatzailearik gabeak aukeratzeko.

- elefantes del zoo destrozan *árboles* centenarios.  
→ zooko elefanteek (guztiek?) **zenbait** zuhaitz urtetsu (zenbait bakarrik?)  
→ elefante **batzuek** (gehienek ala bakar batzuek?) **hainbat** zuhaitz (eta bizpahiru baino ez badira?)

Nolabait zehaztu behar horretan, *batzuk* zenbatzaile esplizituaren zehaztugabetasunera jo dezakegu sarritan:

- elefante **batzuek** zuhaitz antzina-antzinako **batzuk** porrokatu dituzte.

Bereziki zaindu behar da zentzu mugatu-zehatza, espezifikoa («los elefantes (esos en particular)») ez ematea mugagabearen partez («(unos) elefantes»), maiz samar ikusten den moduan; hots, *elefantes=elefanteak* ekuazio ustela automatikoki aplikatzea beti, nahiz beste askotan egokia izan gure plural formalki mugatuak erabiltzea –testuinguruak adiera generikoa bultzatzen duelako erdarazko mugagabeen ordain; kalko okerra egitea, alegia, euskararen numero-bereizkuntzak desitxuratuz.

Jakina, beste testuinguru askotan, egokia izango da euskarazko «elefanteak» mugatua ematea erdarazko «elefantes» indeterminatuaren baliokidetzat, testuinguruak adiera generikoa edo inespezifikoa bultzatzen duelako.

Zehazki, absolutibotik kanpo bederen, *elefanteek, elefanteei, elefanteen(tzat)*... ez dira inolaz ere (*a, de, para...*) *elefantes* mugagabeen baliokide, (*a, de, para...*) *los elefantes* baizik. Beraz, zenbatzaile esplizituren bat behar dute (*batzuk*, kasurako, gehiago zehazterik ez badago): *elefantes = elefante batzuk*. (Hala ere, bistan da, mugatuaren interpretazio generikoa baliatzen da asko eta askotan: «elefanteentzako janaria» = «comida para (los) elefantes»).

## 1.6.2. Zenbatzailerik gabeko mugagabea

### 1.6.2.1. Noiz den egoki

Bestalde, *mugagabe absolutua* (zenbatzailerik-edo gabea, alegia), oro har debeku izanik ere, argi eta xuxen ageri da euskaraz perpaus berezi batzuetan:

Atsotitz eta antzekoetan (arkaismoz edo erregistro bereziz):

- Herrik bere lege (=herri bakoitzak bere legea)
- Ez du juiziozko kondentzen (=juiziozko inork)

Izenordain batzuekin (*besterekin*, *bereziki*):

- Besteri galdetu / bestek esango dizu / besteren etxean

*Zerez/zertaz* kasuan, hots, instrumentalean *-(e)z*. Kasu horrek, aukera ez ezik, joera ere badu mugagabe absolutuaz baliatzeko:

- harriz / eskuz / kolpez / trenez / oinez / euskaraz
- harri gogorrez / esku trebez / sekulako kolpe indartsuz

Leku-denborak adierazteko deklinabide-atzizkiekin (*non*, *nondik*, *nora...*), zenbait esapide berezitan (abstraktuagoa izaten da adiera, mugatuan baino):

- eguzkitan, uretara, gaztetatik...

Aditz-lokuzio batzuetan:

- kalte egin, musu eman...

Atribuzio-perpausetan (*izan* aditzarekin, (sasi)mugatua erabiltzen dira gehienik)

- ura ardo bihurtu, neskame joan

#### 1.6.2.2. Kalko sarrienak

Behin honetara ezker, seinala ditzagun azken boladan zabaldu diren kalko ustel batzuk:

a) Instrumental pluralaren zein singularraren erabilera okerrak.

Mugagabe absolutu hori (zenbatzailerik-edo gabea) onartzen duen (eta hartarakoxe joera ere baduen) *zerez/zertaz* kasu berezian dabilen plural mugatuen abusu nabarmena, alde batetik:

- \*harri *txikiez* inguratua > harri txikiz inguratua
- \*Hanka-arrasto *berriez* (> berriz) beterik dago bide guztia.
- \*Pixkanaka gela guztiak arbel *elektronikoez* (> elektronikoz) hornitzen joateko aukera dago.
- \*Espainolezko hitzak euskal *ukituez* (> ukituz) makillatuta plazaratu dira.
- \*Elkarrizketa *biziez* (> biziz) baliatzen da horretarako.
- \*Braille sistema: hitzak, musika eta kantu xehea idazteko prozedura, *puntuez* (> puntuz) baliatuz itsuek erabil dezaten sortua.

- \*Soinu-uhinaren bibrazioa handia bada, bolumen *handiez* (> handiz) hitz egingo dugu; hau da, ...
- \*Behin bazen amona bat herri txiki-txiki batean bizi zena, *basoez* (>basoz) eta ur hotz garbiko errekatxo batez inguraturik.
- \*Jogurt *potoez* (> potoekin/potoz) eginiko telefono bat da marrazkian ageri dena.

Sarri gertatzen da nahaste hori -a berezkoz amaitzen diren izenekin ere:

- \*apaindurez josia

*Apainduraz josia* arruntaren lekua da hori, ordea, ez baititugu zehazki aipatzen apaindurok, halakoren batzuk badirela, alegia, eta, *josi* horrek aski ulertarazten duenez, ugari direla (nahiz singularraren forma bera izan *apainduraz* mugagabe horrek euskara batuan, berezkoa baitu hitzak amaierako -a).

Eta berdin beste hauetan:

- \**Partikulez* (> partikulaz) osatuta dago materia.
- \*Inausi gabeko heskaien ondotik pasatzean euri *tantez* (>tantaz) bete zaio gabardinarean beheko aldea.
- \*Ulermen-proba bakoitza aukera anitzeko *galderez* (>galderaz) egituratua dago.
- \*Irenek *gonetz* (>gonaz) eta *jertseez* (>jertsez) osatutako 34 konjuntio saldu ditu aste batean.
- \*Andrea –esan zion Uraximak erreginari, *perlez* (>perlaz) eta koralez apaindu-tako galeria batean bazkaltzen ari zirela–, zure ondoan gozo-gozo joan zait denbora ...

Kontrako bidean ere badabil okerrik, singularrean ematen baitu zenbaitek mugagabeari dagokiona:

- \*Gogo *handiaz* → Gogo handiz [Nahiz absolutiboan «gogo handia (dut)» egin; ikus «(nire) ustea» baina «(nire) ustez»]

Antza, bizkaierazko -a(*ga*)z dabil tartean, aldaera laburtua nagusitu baita hizkera gehienetan, eta sozietiboaren eta instrumentalaren arteko lehia, oro har: «(ezkerreko) esku(a)*(re)kin*/esku(a)*(ga)*z (jo)» esapide arruntagoak baitira mendebaleko hizkeretan, zinezko «(ezkerreko) eskuaz (jo)» baino («eskuz», «buruz» eta halakoak, jakina, euskalki guztietakoak dira).

Hona adibide batzuk:

- \*... premiazkoa da programa horiek hezkuntzara ahalmen *handiangoaz* (> *handiangoz*) transferitzea.
- \*Tximinoa trebetasun *barrigarriaz* (> *harrigarriaz*) ibiltzen da zuhaitz batetik bestera jauzika.
- \*Goazen hemendik! -esan dio ahots *dardartiaz* (> *dardartiz*) Joxeri.
- \*... laster etsi behar izan dute, goroldio *bustiaz* (> *bustiz*) estaliak baitaude ertzak.

b) Inesiboaren modu-adiera [*nola*] eta leku-adiera [*non(go)*], eta haien adierazpide okerrak

1. Inesiboan batez ere, zalantza sortzen da ea plurala ala mugagabe absolutua dagokion zenbait kasutan. Kontuan hartu behar da, besteak beste, gramatika-aldaerak fonetismoekin nahasten direla.

Badabil bestelako iritzirik ere, baina, gure ustez, egokia da mugagabe absolutua, inesiboaren oinarrizko zentzutik (*non*) *nola* abstraktuago batera lerratzen denean, eta erabilera hori hobesten dugu, hain zuzen:

- Loreak *sortatan* batu ohi dira.
- Letra *handitan* ageri da hori.
- *Taldetan* banatuko gara hori egiteko.
- *Zortzikotan* eman zuen pasadizoa, zortziko *nagusitan*.
- Eta zortzina bonboiko *kutxatan* banatu behar ditu.
- Zentral batean 65 hl esne daude litro eta erdiko *botilatan* sartzeko.

Bistan da halakoetan ez dela esan nahi «non?: hor, letra handietan», baizik eta «nola?: hala, letra handitan (=handiz)». Izan ere, halako inesibo batzuk beste deklinabide-kasuetara alda litezke (*-(e)z*, *-ka...*), *nola* zentzu hori galdu gabe: «taldetan/taldeka banatu», «koloretan/kolorez idatzia»...

Adierak adiera, ez da ahaztu behar pluralaren esanahi generikoa eta mugagabe absolutuari dagokiona sinonimo gerta daitezkeela, pragmatikoki, testuinguru askotan:

- Ez zaio axola istiluetan/istilutan sartzea.

Hain zuzen ere, hitz batzuekin pluralaren esanahi zehaztuak lekurik ez izateak egiten du posible plural formalak berak hartzea zentzu mugagabea, nahasbiderik gabe: *txorakerietan*, *txantxetan*...

Esanahi biak lehian daudenean, berriz, hobe bereiztea:

- Dezimetan/Bertsoetan eman zuen bere bihotz-minen berri. [*non*, zein lanetan]
- Dezimatan/Bertsotan eman zuen bere bihotz-minen berri. [*nola*, zer moldetan]

2. Nabarmen okerrak dira erdararen kalkoz zein fonetismo desegokiz sorturiko beste batzuk, zinezko lokatiboak baitira [*non(go)*], eta ez baitute, beraz, oro har, mugagabe absolutua onartzen:

- \*Salgai *liburu-dendatan* (> liburu-dendetan)
- \**Begitako/belarritako/tripatako* mina (> begietako, belarrietako/trip(et)ako mina) [«belarritako (batzuk)» zuzena da, jakina]

Honelakoak, berriz, zuzenak dira [*nola(ko)*]:

- Adierazi metrotan.
- Datu horiek milakotara ekarri behar dituzu.
- Eman datuak ehunekotan/eurotan/zenbaki osotan...
- Koloretako alkandora (argazkiak, telebista, betaurrekoak...)

Kontuan hartu, hala ere, unitate-adierazpen soiletik kanpo (metrotan, kaloriatan, eurotan, Farenheit gradutan, kilometrotatik miliatara aldatu...) singularreko jokabidea dagokietan, leku-denborazko kasuetan, halako unitatez neurtutakoei, Hegoaldeko eredu estandarrean bederen:

- Itsasoko ura 11 graduan dago gaur.
- Orduko 25 kilometrotik orduko 75 kilometrora igo da abiadura.

c) *Zertan* adierak eragindako erabilera okerrak

*Zertan* adierakoetan, berriz, nahasiagoa da kontua, eta kasuan-kasuan ikusi behar da zein den tradiziozko forma:

- txipiroitan (mugagabea)
- txantxetan (plurala)

Oro har, -a berezkoa duten hitzek (eta asko dira adiera horretan baliatzen direnak) pluraleko formarako joera dute, gaur egun bederen, mendebalean. Ez dago garbi bilakaera fonetiko den, analogiak lagundua, ala mugatuaren zentzu generikoa baliatzen den, baina hori da joera, oro har (singularra ere lehian ibiltzen da):

- umekerietan, penetan

Hala ere, bada salbuespenik:

- zalantzatan/dudatan

Kalkoen haritik morfosintaxi-arazoetara iritsiak garenez, aipa dezagun antzeko ezbai erabakigaitza gertatzen dela distantzia eta denbora enfatikoki adierazteko neurri-izenekin:

- Urte(e)tan (= urte askoan) ibilia da hala.
- Kilometro(e)tako (=kilometro askoko) ilarak zeuden.

Halakoetan, bada, ausarkeria da, gaur-gaurkoz, forma bat hautatzea estandarerako, baina erabileren barne-koherentziari behintzat eutsi behar zaio, ahalegin guztian.

## 2. Aditzen erabilerari dagozkionak

### 2.1. Azalpen orokorra

Aditzen adiera, jokabidea eta erregimena zehaztea hiztegien eta gramatiken kontua da, zalantzak zalantza. Halako oker asko, zenbaite-tan, erdararen interferentziaz sortuak dira zuzenean; beste batzuk, berriz, analogia ustelez, edo, azken boladan sarri samar, *hiperzuzenketaz*.

*Okerra:*

- \*eman diren suizidioak
- \*Aneri jo dio
- \*horma eusten du

*Zuzena:*

- gertatu diren suizidioak
- Ane jo du
- hormari eusten dio

Beste batzuetan, berriz, eredu estandarretarako hobetsi beharreko erabilera da auzia. Hori ere arauen mailakoa da noski:

*Euskalki-erabilera:*

- Irten/igo dute.

*Eredu estandarra:*

- Irten/igo dira.

Hemen, horiek hiztegi-gramatiketarako utzirik, *aditz-egitura batzuek berekin dakarten kalko semantikoaz* arduratuko gara. Kalko semantikoon artean, *desbideratze estilistiko* direlakoak ditugu: zentzu literaletik beste berezi batera lerratzen direnak.

Halako desbideratzeak, jakina, hizkuntza guztietan gertatzen dira, baina ez modu berean.

*Oinarrizko zentzua*

- Nos vamos.
- Ikastetxera goaz.

*Irudizkoa*

- *Vamos* a decidir.
- Ikasiz *goaz*.

Hizkuntza bakoitzari berea ematea da, bada, kontua. Azken xehetasuneraino sakontzerik ez daukagu, noski, baina interferentziarik zabalduenatariko batzuk jorratuko ditugu jarraian, kalko okerrak salatuz eta aukera egoki batzuk aipatuz.

## 2.2. Kasuistika

### 2.2.1. *Aspektuarekin loturikoak*

Gauza jakina da zalantza ugari sortzen duela aditzaren *aspektu* delakoak, erdal interferentziaz aske ibiltzeko orduan. Aditzen *denbora* baino gauza antzemangaitzagoa da *aspektua*, eta, denborarekin ez ezik, aditz bakoitzaren semantika bereziarekin loturik egoten da. Oinarrizko kontzeptua, hala ere, erraza da ulertzen.

#### 2.2.1.1. Orainaldia geroaldiaren ordeztze (*\*joaten gara > joango gara*)

Ikus dezagun, abiapuntu modura, *eskaera- eta proposamen-galderen kasua*, nabarmenena baita.



*Desegokia (borretarako)*

- Eramaten (al) nauzu?
- Joaten gara/goaz?
- Zer egiten dugu orain, andereño?

*Egokia*

- Eramango (al) nauzu?
- Joango (al) gara?
- Zer egingo dugu orain, andereño?
- Zer egin behar dugu orain, andereño?

Oso jende *ikasiak* ere badarabil, telefonoz adibidez, «Bueno, orduan, bostetan \*geratzen (→geratuko) gara(?)» erdarakada nabarmen hori. Ez dago esan beharrik galdera-marka gabe ere berdin dirauela hutsak, zentzu berbera baitu:

- hori \*egiten (→egingo) dugu... (konforme?).

Bestetik, «vamos»en kalko itsua dela areago frogatzeko, aginterazko forma ere entzuten da inoiz, «joango gara» arruntaren orde:

- bueno, zer, \*goazen?

Aurrerago ikusiko dugunez, *-ko* aspektuko adizkien orde *-t(z)en* aspektukoak erabiltzearen erabiltzez, beste molde bihurriago batzuetara ere ohitzen ari da hainbat hiztun, bere ustetan okerra zuzenduz:

*Oker arrunta*

- \*Irekitzen didazu?

*Oker bihurriagoa*

- \*Ireki diezadakezu?

Ez dago esan beharrik «irekiko (al) didazu?» esan behar dela euskaraz. Ikus ditzagun orain zalantzagarriago diren erabilera batzuk.

2.2.1.2. «Presente historikoa» (\**jaiotzen da > jaiio zen*)

Atal honetan eta hurrengoetan, beste askotan bezala, bi alderdi zaindu behar dira (eta kontu pixka batekin ibili behar da, beraz):

- erdararen kalko okerra
- kalkoaren beldurrez, euskararen aukera egokiak ez murriztea

Esan dezagun, bada, hasieratik: ez da egokia *presente historiko* delakoa euskaraz kalkatzea (honekin batera, hala ere, ikus hurrengo atalak, antzeko erabilera baita, baina aitzakiarik gabea, *orainaldi narratibo*arena).

*Desegokia*

- \*1955ean jaiotzen da.  
[«nace» = «nació»]
- \*1964an sortzen da elkartea.  
[«se crea» = «se creó»]
- \*Iaz sortzen da elkartea.  
[«se crea» = «se creó»]

*Egokia*

- 1955ean jaio zen / jaioa da.
- 1964an sortu zen / sortua da elkartea.
- Iaz sortu zen elkartea.

Bistan denez, aspektuarekin (-tzen) denbora (zen>da), biak aldatzen dira hor erdarazko erabilera berezi horren kalkoan, eta erabatekoa litzateke nahastea euskaraz.

Erdaraz, gainera, *histórico* baino zuzenago eta argiago litzateke *de historiadores* edo *de crónica* deitzea orainaldiaren erabilera horri. Lehenaldi narratibo normalaren monotonia saihesteko baliatzen da, antza, eta, horrekin loturik, erdarazko adizkien errepikapen gogaikarria ere bai:

- Nació... creció... vivió ... estudió... ejerció... dimitió... murió.

Arrazoiak arrazoi, halako aukera estilistikoak hizkuntza bakoitzaren berezitasuna izaten dira, eta hizkuntza horren egitura eta historia-  
ren araberakoak. Frantsesez, kasurako, erregistro landuan baino ez dira dagoeneko erabiltzen, ia, lehen aldiko adizkiak: ez da harritzekoa, beraz, orainaldikoak erabat nagusitzea iraganekoak adierazteko ere.

Euskaraz, berriz, bada beste prozedura bat halako adizki-kateen astuntasuna arintzeko guztiz egokia –*aditza isiltzea*–, eta horixe da gehienetan aukerarik hoberena:

- 1925ean jaio (zen), eta 1999an hil zen.
- Apaiz-ikasketak egin (zituen), hogeitaz misiolari ibili (zen), eta, urteen buruan, apezpiku izatera iritsi zen.

Hegoaldean arruntena den molde horren ondoan, gainera, bada beste bat ere aukeran, lehenbiziko adizkia jokatzen duena:

- 1925ean jaio zen, eta 1999an hil (zen).

Tristeena, hain zuzen, zera da, berriro: euskararen berezko baliabide egokiak baztertu (esku-eskura egonik) eta erdararen prozedurak baldarki imitatzea. Berriro ere, itzulpenetan dugu arriskurik handiena,

baina bestela ere egiten ditugu halako okerrak, hain barruratua dugu erdarazko estilo-eredua bera. Oharturik eta erne egotea da, beraz, kontua, bihurrikeriarik gabeko esapide normaletatik ez alferrik aldentzeko.

Besterik da historialariak ere inoiz, pasarteren batean, literatura petoa egin nahi izatea; kasu horretan, eta jokabide hori zilegi duen neurrian, markaren bat ezarri beharko luke, erregistro-aldaketa seinaltatzeko. Hots, kronikatik irudikapen bizira aldatzen dela ohartarazi (ikus 2.1.4).

### 2.2.1.3. «Futuro historikoa» (*sortuko/sartuko da // sortu/sartu da/zen*)

*Presente historikoaren* aldaera modukoa da, hau ere iragan burutuaren monotonia hausteko baliatzen dena, erdaraz. Harekin batera, ikuspuntu aldaketa dakar, eta, bariazioaz gainera, halako bizitasun moduko bat ematen dio testuari, nolabaiteko mugimendu edo *animazioa*. (Antzeko prozedura da, erdararen kuttuna, *deskribapen animatu* delakoarena: «La torre se alzaba...»). Kasu honetan, iraganean gertaturiko ekintzen artean batzuk besteak baino geroago gertatzen direnez noski, horrek egiten du posible modu erlatiboan ulertzea geroaldiko adizkia:

- Se casa en 1987. Al año siguiente fundará una sociedad...

Euskaraz ere ez legoke arazo handirik berdin jokatzeko, formari dagokionez, baina arriskutsua da bide hori, oso hurbil baitago erabilera hori *presente historikotik*, eta, diogunez, harekin estu lotua. Hain zuzen ere, zenbait testugilek uste bide du *presente historiko* tipikoaren kalkoari dagozkion *-t(z)en* amaierak *-ko* amaieraz ordeztzea aski dela euskara egokira ekartzeko erabilera.

Alegia, «?Hurrengo urtean elkarte bat *sortuko du*» moldean abiatuz gero, jarraian «\*Laster, lehendakari-kargura *iristen da*» egiteko tentazio larria izango dugu. Edo dena geroaldian ematekoa (bariatioaren izenean beste monotonia astunago bat ezarriz).

Hobe, beraz, erabat baztertzea. Ez baitugu, gainera, horren premiarik ere (*presente historikoaz* aipatu dugun bezala), aditz-isiltzeaz eta abarrez egoki baliatuz gero:

- 1987an ezkondu, eta, hurrengo urtean, (dena delako) elkarte sortu zuen.

Ez dago, bada, horren premiarik, eta horixe da kalkora ez jotzeko lehenbiziko irizpidea. Hala ere, inoiz, bide hoberik aurkitu ezean, tarteko moldera jo liteke aukeran, hots, «-ko *zen*» konbinaziora (horrenbestez efektua gordez eta *presente historikoaren* amarrua saihestuz). Ez dirudi, esaterako, *epilogo*-efektu hau guztiz gaitzestekoa denik paragrafoaren edo zatiaren amaiera gisa:

- ... elkartea sortu zuen. Laster, lehendakari izatera *iritsiko zen*.

Bide horretatik jarraitu nahi bagenu, haatik, edo molde berari eutsi beharko genioke («Gero dimititu *egingo zuen*...»), are astunagoa bilakatuz testua, edo, bestela, atzera oinarrizkora itzuli, alda-malda trakets samarra sortuz:

- (?) ...elkartea sortu zuen. Laster, lehendakari izatera *iritsiko zen*. Hurrengo urtean *dimititu zuen*.

Hobe, beraz, tentuz erabiltzea, eta, gehienez ere, *epilogo*-efektu horretarako gordetzea ale bat:

- ... elkartea sortu zuen. Laster, lehendakari izatera *iritsi zen*. Hurrengo urtean *dimititu(ko) zuen*.

Bestalde, erabilera narratibo-puntukari horretan ez bezalako zentzuan, ongi oinarriturik dago tradizioan *-ko* aspektu-marka horretaz baliatzen den molde hori, *-t(z)en* markaren balio maiztasunekoaren orde:

- Ikusiz gero, han etorriko zaio/zitzaion...

#### 2.2.1.4. Orainaldi narratiboa (*sortzen/sartzen da // sortu/sartu da/zen*)

Ez da nahastu behar aurreko ataletako *presente historiko* hori formaz itxura berekoak baina esanahiz bestelakoak diren erabilera batzuekin. Besteak beste, *orainaldi narratiboa*, aldiberekoa, aipa dezakegu; zuzena ez ezik, egoki askoa eta are egokiena izan daiteke bere testuinguruan:

- Etxera zihoala, hara non *agertzen zaion*...

Adibide horren modukoetan, bistakoa da prozedura: orainaldira *ekartzen* da iraganeko kontatera, oraintxe begien aurrean bageneuka bezala irudikatuz, dramatikoago edo biziago bihurtuz horrenbestez.

Horraino, inork ez du, ustez, kalko okertzat jotzen hori. Areago, askoz erabiliagoa da euskaraz erdaraz baino, eta kontuan hartu behar da hori itzulpenetan. Eman dugun hori litzateke, kasurako, erdarazko honen itzulpen egokiago, literalagoa baino:

- Iba a casa, cuando de pronto se le apareció...

Aditz-kate bat dugun kasuan, kontaeretan tipikoa denez, zalantza handiagoak izaten ditugu. Honelakoan aurrean, esaterako:

- Sartzen da; ikusten du han mutila; hurbiltzen zaio, eta belarrondoko bat ematen dio.

Bere horretan, gehienok joko genuke noski trakets samartzat halako esaldia. Zenbaiten iritziz, nahitaez jo beharra dago halakoetan aspektu burutura:

- Sartu da; ikusi du han mutila; hurbildu zaio, eta...

Hori ere, ordea, ez da, bere horretan, erabateko irtenbidea. Izan ere, batetik, gogorarazi beharra dago aditz-isiltzea dugula halakoetarako aukera-aukerakoa:

- Sartu, han ikusi mutila, hurbildu, eta...

Eta, bestetik, nolana dela ere, aditz-isiltzez zein aditz-isiltzerik gabe, katearen amaierako aditzaren aspektua erabaki beharra dago azkeanean, hura baita nagusi. Zehazkiago, amaierako ekintza nagusi horren aurrekari modukoak dira aurreko aditz burutuak, eta horrexegatik ohi datoz burutuan (burututa daude, hain zuzen, azken ekintzara orduko). Eta hor, bistan da, bi gauza desberdin dira honako hauek, eta *aukera biak dira zilegi* noski:

- Sartu (da); ikusi (du) han mutila; hurbildu (zaio), eta belarrondoko bat *eman* dio/zion (zapla).
- Sartu (da); ikusi (du) han mutila; hurbildu (zaio), eta belarrondoko bat *ematen* dio (zapla). (=eta hara non... ematen dion).

Bestela, kondematuta geundeke dena burutuan kontatzera, adierazpen-aukerak murriztuz eta efektu posible bat galduz. Burutua ongi dago bere lekuan, baina burutugabezko orainaldi hori ere euskara egokia da, eta aski erabilia kontraera zahar nahiz berrietan. Besteak beste —literaturan, eta bestela ere bai—, kontatzen denaren denbora eta kontatzen deneko denbora bat egin nahi direnean, halako aldiberekotasun-efektu bat sortuz:

- Lasterka **sartzen** da dendara. Mahai gainean dagoen pistola hartu, eta aulkian dagoen mutilari **destatzen** dio. Mutila ez da **mugitzen**.

Efektua, hain zuzen, *zinematografikoa* edo da: kamera batek zuzenean *kontatzen* duena jasoko bagenu bezala; orain-oraingo esapidez esateko, *denbora errealean, zuzen-zuzenean eta bizi-bizian*.

Esanak esan, bereizi beharra dago, bada, *orainaldi narratibo* —*aldibereko kontaera*— egoki hori *presente historiko* delakoaren kalko desegokitik. Gakoa, diogunez, semantikoa da. Ekintzen eta gainerako

a) gertakari narratiboen agertze zuzen-bizia  
eta

b) gertatu diren/zirenen kronika urrun-burutua  
bereiztea da kontua. Hots, aldibereko narrazio berezia eta kronika tipikoa.<sup>3</sup>

#### 2.2.1.5. *-t(z)en* forma burutugabearen erabilera puntukaria

Behin honetara ezkerro, beraz, zehaztu ditzagun espresuki eta bereziki ondorio jakin batzuk:

Batetik, ez da egia «*-t(z)en*» aspektu burutugabezko adizkiek nahitaez ekintza errepikatu edo ohiturazkoak adierazten dituztenik beti. Hori *ere* adieraz dezakete, baina ez beti.

Esaterako, *jaurtitzen dut* oraintzeko ekintza puntukaria adierazteko erabil daiteke (balizko «*daurtit*» baten adieran, alegia, eta ez *jaurtitzen ari naiz* aspektu iraunkorrekoaren zentzuan), maiztasuneko edo errepikapenezko zentzuan adina (*jaurtitzen dut = jaurti obi dut*).

Xuxenago esateko: puntukarien molde berezia adizki trinkoa da, baina, halakorik ez denean, beste horixe da *aukera bakarra* («oraintxe» uler bedi esaldi bietan):

*Zabarkitua edo*

- Leihotik dakusat txoria.

*Arrunta*

- Leihotik ikusten dut txoria.

<sup>3</sup> Aditzek berek ere eman dezakete pista: «jaiotzen da», kasurako, nekez izan daiteke ekintza *ere*, eta nekezago errepikatu. Atalen goiburuetan eman ditugun aditz bien artean, berriz, ez da erabatekoa aldea, baina askoz ere aiseago agertuko da «(etxera) sartu» ekintza-gertakari bizi, bat-bateko modura, «(elkarrea) sortu» baino.

Bada halako kontamolde bat, guztiz arrunta, burutugabeen baino zentzurik ez duena. Demagun, esaterako, film bat kontatzen ari garela. Aurreiritziak aurreiritzi, guztiok esango genuke honelatsu:

- Mutila hasieran zalantzan **dago**. Gero, neskarekin **ezkontzen da**, baina ez **da lasai geratzen**... Badoa...

Ez dago noski (aditza isildu ezean) aukera hoberik bide horretatik, zeren burutuan (orainaldian –«ezkondu da»– zein, are okerrago, iraganean –«ezkondu zen»–) gauza burutu, dagoeneko (eta benetan!) gertatuzat emango baikenuke guztia, eta ez guk *bizi* izandakoa bizi-bizirik komunikatu solaskideari, une-unean gertatzen ari balitz bezala (hots, filma berriro pasatuko balitz bezala). Gauza bera esan daiteke, izan ere, kontraera guztiez, filmak izan zein edonolako istorioak; behin eta berriro *gertatzen* dira: kontatzen diren bakoitzean.

Ez da hori, hala ere, funtsezkoa hor. Aski da, gure adibidean, *dago* eta (*ba*)*doa* puntukarioi erreparatzea, haiexen kide peto baitira *ezkontzen da* eta tankerakoak esanahiaren aldetik: hots, zentzu puntukarikoak, nahiz (adizki trinkorik ezean) burutugabeen forma beraz baliatu (eta burutugabeok, bestetan, maiztasunezko aspektua adierazteko berdin erabili, beraz).

Horretara, guztiz egokia da molde hori honako kasu tipiko hauetan:

a) Antzerki edota kasete-bideoetako libretoetako akotazio edo oharpenak egiteko:

- (Neska-mutilak ikasgelan **daude**, eta zarata batzuk **entzuten dira**. Irakasleak eta Noemik **hitz egiten dute**. Noemik poliki **hitz egiten du**).
- *Irakaslea*:...
- *Noemi*:...

b) Zuzeneko albisteetan, (arau-)iragarkietan...

- Astarloak 35 puntu **ateratzen dizkio** Bartoliri.
- **Jakinarazten da** matrikula-epea 5etik 22ra zabaldu dela. / Maiatzaren 5etik 22ra **zabaltzen da** matrikula-epea.

c) Eskolako ariketa edo problemetan

1. bai kontraera aldibereko hutsean ari direnean

- Hiru lagun jolas-parke batera **doaz**. Batek 20,50 € daramatza; beste batek, 25,75 €, eta hirugarrenak, 32,25 €. Irteterakoan, 2,36 €, 1,64 € eta 1,25 € **geratzen zaizkie**, hurrenez hurren. Kalkulatu iritzira hirurek gastatutakoa, batekotara biribilduz.
- 3 metroko soka bat **badaukat** eta 55 zentimetro **mozten badizkiot**, zer luzerako soka puska **geratuko zait?** / 3 metroko soka bat **baneukan** eta 55 zentimetro **moztu badizkiot**, zer luzerako soka puska **geratzen zait?**

2. bai ikuspuntuaren jokoagatik denbora-aspektuetan aldeak daudenean ere, ikusten ari garen neurrien barnean:

- Autobus batean 32 lagun **doaz**. Lehenengo geltokian, 12 lagun igo eta 23 **jaisten dira**. Bigarren geltokian, 15 lagun igo eta 19 **jaisten dira**. Zenbat lagun **doaz** orain autobusean?  
Autobus batean 32 lagun **zihozten**. Lehenengo geltokian, 12 lagun igo eta 23 **jaitsi dira**. Bigarren geltokian, 15 lagun igo eta 19 **jaitsi dira**. Zenbat lagun **doaz** orain autobusean?
- Xabierrek kromo batzuk **ditu**. Anaiari 36 **eman dizkio**, eta lagun bati, berriz, 23. Hori egin ondoren, 124 **geratzen zaizkio**. Zenbat kromo **zitu**en Xabierrek hasieran?
- Beheko solairutik abiatuta, 20 solairu igo, 23 **jaitsi**, berriro ere 70 igo eta 48 **jaitsi ditugu**. Zein solairutan **gaude** kasu bakoitzean?
- Joanak liburu baten  $\frac{3}{5}$  **irakurri du/zuen**, eta Mariak, berriz, liburu horren berorren  $\frac{4}{7}$ . Liburuak guztira 140 orrialde **ditu**. Nork **irakurri ditu/zitu**en orrialde gehiago, eta zenbat gehiago?
- Klarak 197 goxoki **eraman ditu** ikastetxera bere 25 ikaskideen artean banatzeko. **Sobratzen zaizkion** guztiak beretzat hartzea **pentsatu du**. Zenbat **jan ahal izango ditu?**  
Klarak 197 goxoki **daramatza** ikastetxera bere 25 ikaskideen artean banatzeko. **Sobratzen zaizkion** guztiak beretzat hartzea **pentsatzen du**. Zenbat **jan ahal izango ditu?**
- Karolinak 246 argazki **zeuzkan** kutxa batean. Josebari 34 **oparitu dizkio**. Zenbat argazki dauzka Karolinak orain?  
Karolinak 246 argazki **dauzka** kutxa batean. Josebari 34 **oparitzen dizkio**. Zenbat argazki dauzka Karolinak orain?
- Gaztainondo batean 8 gaztaina **zeuden**. 3 **jausi dira**. Zenbat gaztaina daude orain?  
Gaztainondo batean 8 gaztaina **daude**. 3 **jausten dira**. Zenbat gaztaina daude orain?



Burutua zein ez-burutua aukerakoak izateak ez du esan nahi, hala ere, sinonimo peto-peto direnik bi erabilerok, nahiz biak gai izan informazio bera emateko gertatuari buruz. Ikuspuntua aldatzen da batetik bestera, eta efektu desberdina sortzen dute bi kontamoldeok. Estilo-aukera dira, bada. Adibideotan eman ditugunez gainera, beraz, beste konbinazio batzuk ere posible dira, kontatzen duenaren ikuspuntua nondik nora dabilen une bakoitzean. Kontakizunaren hariak agintzen du, beraz, eta ez arau gramatikal estu batek.

#### 2.2.1.6. Aditz trinkoen erabilera ez-puntukaria

Orobat ez da egia adizki trinkoak ez duela balio puntukari ez diren ekintzak emateko. Errepara ohi-ohikoak diren esaldi arrunt hauei:

- Egunero **dakarte** zerbait.
- *Jandalo* gure txakurra beti **dago** lo.

Aspektu burutugabezko adizkien alde egiteko tentazioa handia izan badaiteke ere, puntukari moduan eman ohi dira honelakoak. Denbora-aditzondo agerikorik ezean, testuinguruak adierazten du generikoki ulertzekoak direla:

- Lurretik **doazen** (joaten diren) lur gaineko eta lurpeko urei ur kontinentalak esaten zaie, eta ur gezak dira.
- Ruperrek, goizeko 7etan tabernara **doanean** (joaten denean), kafesnea eskatzen du.
- (Ura gure planetan) Urak lurrazalaren gainetik **doaz** (joaten dira), errekek, ibaiak, uharrak... eratuz, itsasora iritsi arte.
- Askotan esplotazio horrek, ondoren, gazte marjinazioa **zekarren** (ekarri ohi zuen) eta, egoera horri aurre egin nahian, Aldundiak...

Hain zuzen ere, halakoetan, aukeran, modu absolutuagoan ulertzen da trinkoa perifrastikoa baino:

- Urak lurrazalaren gainetik doaz. [generikoa: beti doaz]
- Urak lurrazalaren gainetik joaten dira. [joerazkoa: eskuarki joaten dira]

Bestalde, geroaldia adierazteko ere baliagarria da orainaldi puntukaria, erdaraz bezala euskaraz ere:

- Bihar **noa**.
- Arratsaldean **dator** Miren.

Kasu horretan, hurbilaren hurbilez, orainaldian irudikatzen du geroaldi hori hiztunak. Bada, hala ere, adiera horretarako aukerako joskerarik euskaraz, etorkizuna eta orainaldia egoki konbinatzen duenik, eta tamalgarría litzateke molde jator hori baztertzea, askotan gertatzen den moduan (erdarazkotik urruntxeago egoteagatik baztertu ere, euskarra arrunt-arrunta izanagatik!):

- Arratsaldean etortzeko(a) da Miren.

### 2.2.2. Aditz-perifrasiak

Erdarak (gaztelaniak bereziki), aditz zehazki modalez gainera, joera nabarmena du aditz nagusien ñabardura asko beste aditz batzuez emateko, perifrasiak osatuz. Halako asko ere, zentzu zabalean, *aspektu* gramatikalaren adierazpideen artean sar litezke (aditz lagungarriok markatuko ditugu):

- **Vamos** superándolo.
- **Sigue** viviendo ahí.
- **Terminarán/acabarán** chocando.
- **No han terminado** de cenar.
- **Acabo** de verle.
- **Viene** sucediendo.
- **Empieza** a aburrirme.
- **Vamos** a ver...

Errepertorioa luzea da oso, eta beren artean konbinagarri ere izaten dira halako batzuk, bi aditz baino gehiago ere konbinatuz (edo aditz bera behin baino gehiagotan).

- **Están** empezando a saber valerse...
- **Vamos** a irnos yendo.

Erdararen bide hori berezia da, eta hizkuntza askotan ez dira aditzez adieraztekoak xehetasunok. Euskaraz ere ez, gehienetan. Eman ditugun erdarazkootatik batzuk, eman, eman litezke euskaraz egitura berdintsuz arazorik gabe:

- [Vamos superándolo.] Hori gaindituz **goaz**.
- [Sigue viviendo ahí.] Hor bizi izaten segitzen/jarraitzen du.

Baina, oro har, bestelako adierazpideak dituzte halakoek euskaraz, aditz-perifrasietara jo gabe (beti bezala, ematen ditugunez gainera, bada beste aukerarik gauza bera egoki adierazteko):

- [Terminarán/acabarán chocando.] Azkenean tupust egingo dute elkarrekin.
- [No han terminado de cenar.] Oraindik ere afaltzen ari dira.
- [Acabo de verle.] Oraintxe (puntuari) ikusi dut. Oraintxe etortzea egin dut. Erosi berri(ak) ditut / Erosi berria naiz.
- [Viene sucediendo.] Hala gertatu ohi da aspaldi(txo)on.
- [Empieza a aburrirme] Aspertzen hasita nago, hara, tipo horrekin.

Eta perifrasis eman ditugunen modukoek ere izaten dute bestelako modurik:

- Gero eta hobeto daramagu. (<Gaingituz goaz.)
- Hor bizi da betiere. (<Segitzen du bizi izaten.)

Halakoetara itsu-itsuan jo aurretik, bada, ongi begiratzea komeni da ez ote dagoen modu egokiagorik euskaraz gauza bera adierazteko. Hala izanez gero, hobe kalkozko perifrasisira ez jotzea.

Kasurik tipikoenak, eta muga marka dezaketanak, honako hauek dira (har bitez antzeko kasu askoren adibidetzat):

- Entzefaloaren barrualdea **ikustera goaz** jarraian.
- **Goazen mintzatzera** gizakiaren sorreraz.
- Demagun **jatera zoazen** sagarra esferikoa dela.
- Zer **esatera nindoan?**

Ezin da ukatu zaharra dela, eta aski zabaldua, *joan* aditzaren esanahia zentzu irudizkoan hartzen duen kalkozko erabilera hori. Orobat ezin ukatuzkoa da, hala ere:

1. batetik, zentzu fisikoarekin lehian gerta daitekeela (testuetan nekezago);
2. eta, bestetik eta funtsezkoen, badela hori adierazteko modu euskaraz garbi-garbikorik:
  - **Ikus dezagun** orain entzefaloaren barrualdea.
  - **Ea, mintza gaitzen** gizakiaren sorreraz.
  - Demagun (oraintxe) **jan behar duzun** (jango duzun, jateko zaren...) sagarra esferikoa dela.

- Zer esateko nintzen?

Oro har, bada, bestelako aukerak lehenestea komeni da, eta, erabiltzekotan, euskaraz guztiz erroturik daudenak baino ez erabiltzea, neurritz eta tentuz, halakoen maiztasuna ere zainduz.

### 2.2.3. Aditz modalak

#### 2.2.3.1. *Behar izan*

Interferentziei dagokienez, zalantza bakarra da aipagarri. Erdaraz, honako anbiguotasun hau dugu:

- Debe venir (betekizunezkoa= tiene el deber de venir).
- Debe (de) venir (irudipenezkoa= al parecer, por lo visto, viene).

Euskarari dagokionez, ea anbiguotasun bera dugun galde daiteke, eta baietz esan behar da, badela anbiguotasuna, baina, eskuarki, bestelakoa:

- Etorri behar du (betekizunezkoa=etorri beharra du/dauka).
- Etorri behar du (geroaldikoa=etortzeko(a) da, etorriko da).

Ez dirudi, beraz, interferentziarik gerta litekeenik bion artean. Kontuak kontu, anbiguotasuna ebazteko (beharrezkoa izanez gero), aski da parentesi artean eman ditugunen moduko joskeretara jotzea.

- Etorri beharra dauka / etorri beharrean naiz/nago.
- Eortzeko(ak) dira / etorriko omen/ei dira.

Dena dela, esapide batzuetan, euskaraz ere badu *behar* aditzak irudipenezko zentzua (beste adieretan interpretatzea eragozten duten testuinguruetan). Kasu horretan, zalantza izaten dugu subjektuari zer kasu dagokion:

- Argentina(k) lurralde zabala izan behar du.

Izan ere, tirabira sortzen da adizkiak eskatzen duen ergatiboaren eta sakonean egon ohi den perpaus kopulatiboaren artean («Argentina lurralde zabala bide da»). Jakina, «behar du»ren ordez «behar da» emango luke zenbaitek, baina ez da hori eredu zabalduena. Zalantzari ihes egin nahi dionak, bada, *behar* aditzaren bidezko perifrasiak utzi, eta beste moldeetara jo behar:

- Argentina lurralde zabala bide da.
- Argentina lurralde zabala da, antza/nonbait/noski/inondik ere...

Dena dela, ez da beti hain erraza ordezen; bereziki, zentzu enfatikoa nahasten denean:

- Ederra izan behar du (, bai horixe,) horrela bizitzea(k).

Kasu horretan, bestelako joskerak aukera egin behar izaten dute enfasiszkoaren eta irudipenezkoaren artean:

- Zeinen ederra (litzatekeen) horrela bizitzea!
- Bai ederra (litzatekeela) horrela bizitzea!
- Ederra da, noski/nonbait/antza..., horrela bizitzea.
- Ederra bide da horrela bizitzea.

#### 2.2.3.2. *Nahi izan*

Aditz honen kasuan, erdararen interferentzia zenbateraino den ziur esatea zaila den arren, bada hitz-ordenarekin loturiko auzi bat. Izan ere, euskaraz, modalizatzen duen aditzaren jarraian izanik ere berezko lekua *nahi izan* horrek:

- Dorrearen goreneraino **igo nahi** nuke.

oso maiz gertatzen da aurren-aurrena *nahi* hori adieraztea eta geroago nahiaren objektua. Hizketan, hain zuzen, askotan, pentsatzen edo formulazioa bilatzen geratzen gara, eten bat eginez eta esaldia zintzilik utziz:

- **Nahi** nuke...

Egokia da noski hori ere. Erdararen antzera geratzen da horrenbestez ordenamendua, baina, erdaraz ez bezala, *nahi* horrek modalizatzen duen aditza ez dator zuzenean jarraian:

- **Quisiera subir** a lo más alto de la torre...
- **Nahi** nuke ... dorrearen goreneraino **igo**.

Hori ere egokia da, baina aipatu beharra dago, euskalki erabilera bereziz zein anakolutoz (*nahi* urrun hori ahazten zaigulako), *igo* partizipio soilaren ordeztu *igotzea* aditz-izena lerra dakigukeela, esanahia aldatuz:

- **Nahi** nuke ... dorrearen goreneraino [\*neu] **igotzea**.

Eta berdin *nahiagorekin*:

- **Nahiago** izan dut, normalean, testuan txertaturiko erreferentzia bibliografiko askorik ez **erabiltzea** [\*neuk].

Euskalki gehienetan eta eredu erabilienean, adizki modalizatuak joskera desberdina eskatzen du korreferentea denean eta bestela, eta joskera horri eutsi behar diogu, beraz:

- **Nahi** nuke ... [beste norbait] **igotzea**.
- **Nahi** nuke ... [neu] **igo**.

#### 2.2.4. *Baldintza*

Baldintzak hipotesi bat adierazten du. Utz ditzagun alde batera iraganekoak, eta jar gaitzen gertakizunekoei begira. Halakoetan, hipotesia gertatzea zenbateraino espero den, bi aukera bereizten dira:

- Goiz iristen bada (eta irits daiteke noski)...
- Goiz iritsiko balitz (eta irits liteke beharbada)...

Hala abiatuturiko baldintza bakoitzari, jakina, denbora-aspektuz komuntaturiko ondorio bana dagokio hurrenez hurren:

- Goiz iristen (baldin) bada, **ikusiko du**.
- Goiz iritsiko (baldin) balitz, **ikusiko luke**.
- Puskatzen badu, berak ordainduko du / ordaindu beharko du.
- Puskatuko balu, berak ordainduko luke / ordaindu behar(ko) luke.
- \*Puskatuko balu, berak ordaindu(behar)ko du.

Sistema horri eustea besterik ez genuke, horixe baita zuzena eta bakarra; baina gatzelaniaren interferentziaz eta nahastez gero eta sarriago aurkitzen ditugu honelakoak:

- \*Goiz iritsiko balitz, ikusiko du/esango diogu/aukera izango du...

Erdarakada, kasu honetan, are gaitzagoa da: imitatzen duen egitura ez baita zuzena erdaraz ere! (Bai, ordea, barra-barra dabilena zenbait erregistrotan, lege-arloa barne):

- Si no se **presentare**, perderá (horretarako zuzena, baina zaharkitua).
- \*Si no se **presentara/presentase**, perderá (horretarako okerra, arrunt erabilia izan arren).

Zerk bultzatzen du zenbait, ordea, erdaraz eta haren kalkoz euskaraz ere berdin, hipotesi urruneko baldintzara, hala ez dagokionean ere?

Itxura denez, «si no se presenta» nahiz «agertzen ez bada» baldintza hipotetiko *hurbila* (hipotesia gertatzea oso aukera normaltzat jotzen duena) *hurbilegi*, eskuarki gertatzeko modukoegi sentitzeak eragiten du aldrebeskeria hori. Alegia, baldintza hurbila erabiliz gero, ematen du hiztunaren kalkuluetan sartzen dela hipotesia gauzatuko dela edo horretarako posibilitate handi(egi)a dagoela:

- Agertzen ez bada (eta agertzeko adina aukera dago ez agertzeko)...
- Kalterik gertatzen bada (gertatzea normala baita)...

Hona hemen hipotesiaren hurbiltasuna murrizteko euskaraz erabil daitezkeen bideak:

a) Erdaraz, hipotesiaren gordintasun hori ematzera zetorren, hain zuzen, «si no se *presentare*» zaharkitu-edo hura, eta euskaraz ere badugu (edo bagenuen?) tarteko hurbiltasuneko hipotesiok adierazteko modu zehatza (hori litzateke, beraz, *presentare* moldearen baliokide aukerakoa):

- Ager ez badadi...
- Kalterik gerta badadi...

Halakoetara jo ezean (eta ez dirudi egoki, oro har), forma arruntari eutsi behar zaio, hasieratik adierazi dugunez.

b) Horretan etsi nahi ez duenak, haatik, molde zaharkitu hori alde batera utzirik ere, badu modurik. Batetik, baldintzatasuna erredundantzia markatzen duen partikula balia daiteke horretarako (nahiz berez ez duen aldatzen zentzua):

- Erantzuten ez **baldin** baduzu, puntu bat galduko duzu.
- **Baldin** eta zure erantzunik garaiz jasotzen ez badugu, puntu bat galduko duzu.

c) Hizkera bizi arruntak ere badu esapide bereziturik hipotesien gehiegiko hurbiltasuna esplizituki urruntzeko. Tamalez, erabili-  
lienek ez dirudite egokiak idazkera formalerako:

- **Deskuidoan / deskuido santuan** berandu iristen bazara, aukera galduko duzu. Hobe genuke, hala ere, halakoren bat sartu, horren faltan molde (dotore-ustez) ustel horretara jo baino:
- \*Berandu iritsiko **bazina**, aukera galduko duzu.

d) Bestalde, eta kontuan harturik baldintzazko perpausa beti doala ondoriozkoarekin, haren baitan utz daiteke gehienetan aditz jokatua eman beharreko informazioa (denbora/aspektua, subjektua...), eta forma jokatugabea eman baldintza, hala neutralizatu egiten baita aukeren arteko oposizioa («iristen bada»/«iritsiko balitz»):

- Berandu iritsiz gero, aukera galduko duzu.

Azpitarratzekoa da euskararen aukera berezi hori, askotan ez baitugu gogoan, itzultzen ari garelarik batez ere. Izan ere, erdaraz jokatua erabiltzen da ia beti, oso bazterreko erabilera baita jokatugabearena («de venir»).

Azken ohartxo pare bat egin beharra dago baldintzazko adizkien inguruan.

1. Arazoa adizki trinkoekin ere gertatzen da, jakina; areagoturik, gainera, sasidotoreziak jota. Beraz:

[*desegokiak*]

- \*Berandu **baletor**, aukera galduko du.
- \*Astirik **bazenu**, kontatuko dizut.
- \*Arriskuan **balego**, esango didazu / esadazu.
- \*... eta, eragozpenik ez **balego** eta ongi **baleritza**, onar ditzan.

[*egokiak*]

- Berandu (baldin) badator, aukera galduko du.
- Astirik/astia (baldin) baduzu, kontatuko dizut.
- Arriskuan (baldin) badago, esango didazu / esadazu.
- ... eta, eragozpenik ez (baldin) badago eta ongi baderitzo, onar ditzan.

2. Ondoriorik gabe geratzen da batzuetan baldintza, etenik bezala, desira hutsa adieraziz edo («Hegorik banu...!»). Horren aldaera baino ez da *eskaera adeitsu* izena eman dakiokiena (desira agertzeak solaskidea inplikatu nahi du desiraren lorpenean):

- Mesede bat egingo bazenit... (eskertuko nizuke).

Molde horretakoetan ere sarri gertatzen da nahastea. Egokia da noski erabilera hori, beste hau bezain zilegi, hain zuzen («egin-go (al) zenidake?», «egin-go (al) didazu?» eta, oinarrian, «gida-



zu, mesedez» moldeen esparru berekoak guztiak, hots, adeitasunez gutxi-asko *leunduriko* eskaerak):

- Mesede bat egiten (baldin) badidazu...(eskertuko dizut).

Alegia, gehienetan bezala, biak nahastea litzateke okerra:

- \*Mesede bat **egingo bazenit**, eskertuko dizut.

## 2.2.5. *Ahalera*

### 2.2.5.1. Oro har

Bi arrisku nagusi ditugu:

a) Ahalerazko aditz askok, semantikaren, testuinguruaren eta besteren arabera, bi interpretazio dituzte, erdaraz zein euskaraz (ahalmena/gertagarritasuna):

- irabaz dezake = puede ganar

1. *Irabazteko ahalmen/modu/aukera...* duela adieraz dezake, alde batetik, esaldiak. Subjektuak duen gaitasuna edo ahalmena adierazten da halakoetan (epistemikoa ez den zentzua).

2. *Irabaztea daitekeena/litekeena* dela ere adieraz dezake, ordea. Perpausaren edukia gertagarritzat jotzen duela adierazten du hala hiztunak (zentzu epistemikoa).

Batzuetan ez da erraza interpretazio bata ala bestea indartzen duten eragile sintaktiko, semantiko eta pragmatiko guztiak formalizatzea<sup>4</sup>. Kasurako, euskaraz, *irabaz lezake* errazago interpretatu ohi dugu bigarren zentzu horretan (zentzu *epistemikoan*,

---

<sup>4</sup> Ahalerazko adizki berezirik gabeko beste euskalki-esapide batzuk ere ez daude libre anbigotasun horretatik, eta, bestela ere, hobe da eredu estandarretako haietara ez jotzea:

- irabazten ahal du (ekialdekoa)
- irabazi ahal du (Bizkaiko hizkera batzuetakoa)

Inoiz berezikuntzarik egin ote den eztabaidagarri bada ere, ez dirudi gaur egun halako alde-rik dagoenik (alde horretatik, bederen) ahalerazko adizki bereziz emanikoen eta *ahal* nahiz *ezin* modalez moldaturikoen artean, molde biek onartzen baitituzte interpretazio biak (ahalmena/gertagarritasuna):

- Ez dezake irabaz.
- Ezin du irabazi.

alegia) *irabaz dezake* baino. Hala ere, *gerta daiteke*, esaterako, nekez interpreta daiteke *abalmenezko* zentzuan (noren ahalmena?).

Formalizazioa erraza izan ez arren, ordea, ez dago zailtasun handirik zentzu biok praktikan bereizteko, eta, beharrezko iritziz gero, bestelako aukera gramatikaletara jotzeko, anbiguotasuna uxatuz. Alde bietara uxa baitaiteke, gainera, guztiz modu arruntan, euskaraz bederen:

- Badu irabazteko modua / aukera garbia du irabazteko / gai da irabazteko.
- Litekeena da irabaztea / baliteke irabaztea / ez litzateke harritzekoa irabaztea / dirudienez, irabazi egingo du.

b) Denbora/aspektu konbinazio batzuek badute erdaraz esanahi espezializaturik, eta zaindu beharra dago halakoen kalkoa. Orainaldiko burutuak, esaterako, badu joera, gerta zitekeena ez ezik, gertatu ere gertatu dena adierazteko:

- (Al fin) ha podido entrar.

Horren euskarazko baliokide egokiek garbi uzten dute ideia hori (\*), gertagarritasun hutsetik (\*\*) bereziz:

- (\*) (Azkenean) lortu du sartzea / (azkenean) modua egin du sartzeko / (azkenean) asmatu du sartzen.
- (\*\*) Sar zitekeen / sartzea zeukan / bazuen sartzeko modua/aukera.

Kalko oker deritzogu, bada, oro har, halakoak honela emateari:

- \*(Azkenean) sartu ahal izan da/zen.

Izan ere, beste honelakoetarako erabiltzen da molde hori:

- Gola sartu ahal izan du/zuen, baina kanpora jaurti du/zuen (azkenean).

Hots, «gola sartzeko aukera izan du/zuen» nahiz «gola sartzeko zorian egon da/zen» erabiltzen denean bezalatsu. Esan dugu, hala ere, konplexuak direla interpretazio-prozesuak, eta, beste esaldi batzuetan, posible dira biak:

- Londres bisitatzeko aukera izan du/zuen, baina uko egin dio/zion.
- Londres bisitatzeko aukera izan du/zuen, eta zoragarria iruditu zaio/zitzaion.

Bigarren adiera horretan, hain zuzen, zalantzarriago dirudi *ahal izan* esapidearen erabilerak (zalantzan, hobe joskera seguruagoetara jotzea):

- Londres bisitatu ahal izan du/zuen, baina uko egin dio/zion.
- ?Londres bisitatu ahal izan du/zuen, eta zoragarria iruditu zaio/zitzaion.

Kontuak kontu, zalantza eta guzti, betiko aholkuak balio du honetan ere: ez kalkatu itsu-itsuan erdarazko ahalerazkoak, baizik eta euskaraz ideia hori nola adieraziko zenukeen pentsatu.

#### 2.2.5.2. Agintera gordina leuntzeko

Aurrerago aipatu dugu nola erabiltzen diren baldintzazko adizkiak agintera adeitsuago-edo bihurtzeko, eskaerak egiteko orduan:

- Egidazu mesedea > egingo didazu/zenidake mesedea? > egingo bazenit mesedea...

Erdaraz, ordea, *poder* aditz modal hori ere erabiltzen da, aurreko moldeekin konbinaturik, eginkizun bererako (adeitasunaren erreduntantzia eufemistiko):

- Puedes/podrías hacerme un favor? / si pudieras hacerme un favor... / puedes /podrías traerme el libro?

Erabilera horren kalko guztiak nabarmen desegokiak dira euskaraz («mesedez» edo ulertarazi nahi denean, alegia):

- \*Egin diezadakezu/zeniezadake mesede bat?
- \*Mesede bat egin ahal bazenit...
- \*Ekar diezadakezu/zeniezadake liburua?

Geroaldi soila baitagokie halakoei (edo baldintza-ondorioa):

- Mesede bat egingo (al) didazu/zenidake?
- Ekarriko didazu/zenidake liburua?

Jakina, zuzenak dira halako esaldiak, baldin eta benetako ahal izateaz ari bagara:

- Ekar (al) diezadakezu liburua? [Baduzu modurik liburua ekartzeko?]

### 2.2.5.3. Ahalera gaztelaniazko subjuntibozko perpaus erlatiboen ordain (\*gerta litezkeen kalteak)?

Aurreko atalean ikusi dugun moduan, erdararen molde berezi-bereziak dira *poder* aditz modalaren erabilera batzuk, eta ez da egoki euskaraz egiturok kalkatzea. Horietakoa da, hain zuzen, atal honetan aipagai duguna. Argiago ikus daiteke auzia adibide batekin, izenburuko terminologia bihurri horrekin baino:

- ?Los retrasos que **podieran** producirse no **darán** derecho...

Baldintzez ari ginela ikusi dugu «(si se) produjeran» ustela erabiltzen dela «(si se) produjeren» zaharkituaren hutsunea betez. Oraingo adibidean ageri zaigun *podieran* hori ere ustela da hor, izatez (*podieren* litzateke, izatekotan), honelako segida eskatuko bailuke, bestela, berez:

- Los retrasos que **podieran** producirse no **darían** derecho...

Euskaraz, ez da egoki ahalerazko formak erabiltzea halako erlatibotetan, ez baita benetako ahalera hor erdarak darabilena, hipotesia urruntzeko edo leuntzeko prozedura baizik. Alegia, aski dela subjuntiboa edo, kasu gehien-gehienetan, indikatibo arrunta, ahalerazkoetara jo gabe (aditz nagusiak argituko du, geroaldian doalarik, gertakizun den zerbaitetaz ari garena erlatibo horretan). Nola eman, alegia, hau?:

- Los candidatos que **podieran** presentarse tendrán derecho...

Formarik ohikoena:

- Aurkezten diren hautagaiek eskubidea izango dute...

Erregistro batzuetan, zehaztasun handiagoa bilatzen bada, zinezko subjuntiboetara jo liteke, noski, teorian (ez da beharrezkoa, ez gomen-dagarria ere, oro har, halako arkaismoetara jotzea testu arruntetan):

- Aurkez daitezen hautagaiek eskubidea izango dute...

Gutziz desegokiak dira, berriz, asmakeria hutsa, semantikaren eta gramatikaren beraren kontrakoak nabarmen (besteak beste, denbora- aspektuen komuntadura okerreiz), honelakoak:

- \*(**Agian**) gerta (ahal) litezkeen kalteak antolatzaileak ordainduko ditu.

Hala ere, erlatibozkorik gabe ematea izango da gehienetan irtenbiderik egokiena (baldintza inplizitua esplizitatuz, egoki iritziz gero):

- Hautagaiek (, aurkeztuz gero,) eskubidea izango dute...
- Atzerapenek (, halakorik gertatuz gero,) ez dute emango...
- Kalteak, halakorik izanez gero, antolatzaileak ordainduko ditu.

Jakina, zilegi da benetako ahalerazko perpausak erlatiboz menderatzea:

- Zertaz daude arduraturik: hil litezkeen herritarrez ala gerta litezkeen kalte materialez?

### 2.2.6. *Egin* aditz anaforiko ustela

Ez da inolaz ere egokia *egin* aditza erabiltzea aurrerago aipatu den beste baten ordezkotzat. Kasu honetan, are baldarragoa da kalkoa, zeren erdaraz anaforikoa dena ez baita *hacer* aditza, hari erantsirik doan (*hacer*)-*lo* izenordaina baizik.

- Esan zuen berak bilduko zuela dena, baina ez du bildu/\*egin.
- Edan behar baduzu, edazu/\*egizu kontuz.

Zuzenak dira, jakina, beste honako hauek:

- Lan **egin**go zuela agindu arren, ez zuen **egin**.
- Dibortziatuko zela mehatxatu zuen arren, ez zuen **halakorik** egin.
- Errusiara joango zela esan, eta **hala/hori**(xe) egin zuen.

# Perpausetik goragoko kalkoak

## 1. *Bezala* ustela

*Bezala* hitzaren berezko erabilera, bistan da, konparazioetarako da. Sakonean, perpaus bat dago *bezala* horren baitan:

- Nola dabilen zuzendaria, **hala** dabiltza mendekoak.  
→ Zuzendaria (dabilen) **bezala** dabiltza mendekoak.

Baliagarria da, hain zuzen ere, horretaz jabetzea, *bezalaren* erabilera egokia (konparaziozkoa) mugatzeko: posible izan behar da azpiko perpaus hori esplizitatzea, parafrasi modura.

Zoritxarrez, erdarazko *como* hitzaren gainerako adieretarako ere erabiltzea dakar erdararen interferentziak, adibideetan ikusiko dugun moduan. Euskaraz, jakina denez, badira hainbat molde jator erdarazko *como* orohartzaile horren baliokide egoki. Atribuziozkoa denean, esaterako:

- Soldadu joan zen [*\*soldadu bezala*].<sup>5</sup>
- Aurrelari (lanetan) jardun du [*\*aurrelari(a) bezala*].
- Nagusitzat daukate [*\*nagusi bezala* (kontsideratzen) dute].
- Sara izenez bataiatu zuten [*\*Sara bezala*].
- *Infernuaren aboa* esaten dioten (delako) leizea [*\*Infernuaren aboa bezala eza-gutzen den leizea*].
- Antolatzaile gisa(ra)/moduan(ra) da ona [*\*antolatzaile bezala*].

---

<sup>5</sup> Berrito ere garbi utzi behar dugu guk hemen esamolde bati izartxo (*\**) ipintzeak ez duela esan nahi, nahitaez, euskaraz inoiz erabili ez denik, proposatzen den ereduarekiko desegokitzat jotzen dugula baizik.

Azken adibide horren modukoak dira gehien nahasten direnak (nahastearen lehen adibide noizbehinkakoak zaharrak dira eta aski zabalduak dabilta gaur egun zenbaiten hizkeran). Erabilerarik zorrotzenez, bada, azken adibidekoen modukoetan, *gisa(n/ra)* eta *modu(an/ra)* horien tankerakoak dira erabiltzekoak, konparatiboetarako utzirik *bezala*.

*Bezalaren* erabilera ustelaren arazoa, bestetik, ez da hitz horren berezko semantikari dagokiona soilik, beste aukerok ez bezalako anbigotasunak sorrarazten baititu haren sintaxiak ere:

- Poetaren *gisa/modura* mintzatu da [konparatiboa].
- Poeta *gisa/modura* mintzatu da [atributiboa].
- *Poeta bezala mintzatu da* [soilik konparatiboa, izatez, baina zenbaitek atribuziozkotzat ere erabilia, salatzen ari garenez, forma berean].

Kasurik nabarmenenak, beharbada, atribuzioa adierazteko aditz berezietz lagundurikoena da (hartu, jo, eduki...), non *-tzat* atzizki prolatiboa ordeztu nahi baitu *bezalak*:

- \*ekoizpenerako eredu *bezala* hartuta baizik [eredutzat].
- \*Gizonezkoenak *bezala* hartzen dira [gizonezkoen (gauza)tzat].

Laburtuz, bada, honako hau da gure proposamena:

Zentzu konparatiboa ez duten *bezala* horiek baztertu, eta adiera egoikiaren araberrako kasuan kasuko moldera jotzea, seinaturiko aukeratik.

Kasurik oinarrizkoen eta ohikoenak baino ez dira aipatu hemen, baina zabalagoa da erdarazko *como* horren kalko-arriskua. Ikus, adibidez, horren eta besteren kalkoitsuak nolako mordoilo sasidotora ekar gintzakeen (adibidea erreala da!):

- eragina izatea gizartean bezalako erantzunak

Ustez, honelako zerbait esan nahi zen hor:

- erantzun batzuk/zenbait, hala nola (; honako hau, adibidez:) «gizartean eragina izatea»

Izan ere, hori baita erdarazko *comoren* beste erabilera bat, euskaraz bere horretan kalkatzerik ez dagoena noski (besteak beste, hizkuntza bakoitzaren hitz ordenamendua da hor auzia); adibideak ematekoa, alegia (bi puntuen etenik gabe):

- respuestas/pájaros... (tales) como (:)
- \*Gure lorategietan, txantxangorria eta zozoa bezalako txoriak izaten dira.

Bistan da erne ibili beharreko kontua dela, eta hemen azaldu dugun baino kasuistika zabalagoa hartzen duela. Aldi berean, ordea, oso erraza da detektatzen, eta testugilearen senak neke handirik gabe aurkitu ditzake kasuan kasuko irtenbide egokiak.

## 2. Erakusleen testu-erabilerak (anafora/katafora)

### 2.1. Azalpen orokorra

Aldez aurretik esan beharra dago azken urteotara arte ez dela gauza handirik eztabaidatu gai honetaz (haren/bere oposizioaren kontuan ez bada), eta normaltzat jo daitekeela, beraz, oharkabean pasatu izana arazoa zenbait testugile eta zuzentzaileri.

Zuzentasun gramatikalari gabe, *bizkuntzaren estilistika* delakoari dagokio kontua, hots, gramatikala denaren barnean hizkuntza bakoitzak egiten duen hautaketa eta agertzen duen joerari.

Ahozko solasean, erreferenteak fisikoki seinalatzeke erabiltzen dira batez ere erakusleak. Erakusleek funtzio deiktikoa betetzen dutela esaten da orduan. Testuetan, berriz, haiek fisikoki seinalatzeke modurik ez eta, *anafora* direlakoetarako erabiltzen dira nagusiki, hots, jadanik aipatu den erreferente baten errepikapena ordezteko. (Eta berdintsu, ikusiko dugunez, *katafora*: geroago aipatuko dena ordezten denean).

Ahozkoan ere erabiltzen dira, deixi zuzenarekin batera, anafora eta katafora. Idatzietako erabilera bereziena, berriz —testuko bertako elementuren bat seinalatzea, alegia—, ez da, noski, ahozkoan ageri.

Dena dela, deskribapen sinple horretatik bertatik ateratzen da ezen, erakuslezko anaforara jo gabe ere, baditugula euskaraz beste bi aukera aintzat hartu beharrekoak:

- a) Batere markatu gabe ongi ulertzen bada erreferentea bigarren agerpenean, markatu gabe uztea (besteak beste, ingelesez eta frantsesez nahitaezkoa da subjektu esplizitua, euskaraz eta gaztelaniaz ez bezala). Lehen kasu hau guztiz aplikagarria dugu euskaraz, bereziki, genitibo edutezkoaren kasuan, erreduantzia erabiltzen baitute sarritan inguruko erdarek:



- Se fue a **su** casa.  
→ Etxera joan zen.

b) Beste muturretik, erakuslea den aipamen eskasagoarekin ongi ulertzeko arriskua ikusiz gero, erreferentea bere horretan errepikatzea (tarteko bidea: sinonimoren bat):

- Hantxe elkartu ziren Ane eta Patxi. Patxiren (mutilaren) / Aneren (neskaren)  
→ etxera joan ziren.

Genero gramatikala bereizten duen hizkuntzak, beharbada, aski izango du bereizte horrekin:

- a casa de él (este) / ella
- to his/her house

Euskarak, baina, ezin du horrela jokatu, erreferentzien zehaztasuna gordeko bada. Zorrotzago zaindu beharko da, beraz, alderdi hori, itzulpenetan bereziki, euskarazko testuaren beharretara egokitua egon dadin anafora-sistema, jatorrizkoaren kalko mekanikoa izan beharrean.

## 2.2. *Haren (+beraren) eta bere*

Genitiboarenean ez ezik, erakusle guztien kasuan ere gauza bera esan eta errepikatu beharra dago hasieratik: hizkuntza bakoitzak du bere anafora-sistema berezia, eta bere sintaxi bereziari egokitua, eta ezin dira, beraz, banakako piezak beren horretan kalkatu (ohar honek beste arlo guztietarako balio du, eta bereziki kohesio-emaile diren prozeduretarako; besteak beste, puntuaziorako). Itzulpenean-eta, beraz, testu burujabe bakoitzaren kohesio-premiekin agintzen dute zer noiz erabili, eta jatorrizko testuaren literaltasunak ez ditu eragotzi behar itzuliaren aukera beregainak.

Anaforen kontu honetan, genitiboaren auzia da beharbada buruko min handiena ematen duena. Eta erreferenteak zehazki eta eroso identifikatzea bada ikasliburuetako testuen lehenetariko baldintza, nagusia ez bada, erdarazko *su* guztiak kalkoz automatikoki *bere* ez egitea da, hain zuzen, gutxieneko baldintza (*su* polisemiko nahasbidetsu hori aski bitxia

da, izan ere, edozein hizkuntzarentzat, eta gaztelaniaren sistemaren barnean ere bai, genero eta numero bereizkuntzarik gabea baita, besteak beste).

Horrek honako proposamen bikoitz hau egitera garamatza:<sup>6</sup>

- a) *Haren* da (eta, hegoaldean, baita *beraren* berretu edo indartua ere) anafora arrunterako oinarrizko aukera.
- b) *Bere* forma bihurkaria, berriz, izenordain hori daraman perpau-seko aditzak markatzen duen erreferente batekiko erreferentziakidetasunaren kasurako gordetzekoa.

Beraz:

1. Bera parte den perpausaren aditzak marka ditzakeen hiru erreferenteetako batekiko (hots, *nork*, *nor* eta *nori* kasu gramatika-lekiko) erreferentziakide denean erabiliko da *bere*.

- Patxik bere [Patxiren] dirua ekarri du.
- Patxi bere [Patxiren] etxean utzi dugu.
- Patxiri bere [Patxiren] jarrerak egin dio kalte.

2. Osterantzean, *haren* anafora arrunta da egokia:

- Ignazio da *?bere* (> **haren**) izena [edo baliokidea: «Ignazio du izena»].
- Kanean egin nuen topo Itziarrekin, eta *?bere* (> **haren**) etxera joan ginen biok.
- Jainkoa *??bere* (> **haren** [beste norbaiten]) bekatuez damaturik zegoen.
- Karratu baten aldea 5 m(-koa) bada, zenbat(eko) da *?bere* (> **haren**) azalera?

Zenbait egituratan, gogor samar gertatuko zaio zenbaiti *haren* arrunta, *bereren* inflaziora aspalditik ohitua, baina erreferentziakidetasunaren lege zorrotzera lotzea komeni da. Aipagarria da koordinazioaren kasua, anaforaren erreferentea pluralean bildurik egotea ez baita aski korreferentziatzat hartzeko:

- Maddi eta **haren/beraren** [*?bere*] lagunak etorri **ziren**.

---

<sup>6</sup> Pluralerako ere berdin balio du proposamenak, nahiz eta arazoa, hiru forma baitabiltza borrokan (*beren*, *euren*, *\*beraien*), handiagoa izan hor. Auzia, gainera, ez da genitiboona soilik, deklinabide osoarena baizik, hots, plural guztiena (*berak*, *eurak*, *\*beraiek*). Forma indartu edo berretuen presentzia gutxiagotzera jo behar genuke, *haiek* forma soila aski denean.

3. *Haren* soilak nahastea sortzen badu, eta *bere* (bihurkaria) ez badagokio, *beraren* (berretu edo indartua) dugu aukeran (aurreko adibidean ere halaxe eman dugu):

- Anek esan digu **beraren** [>Aneren] etxean geratuko dela Miren.
- energia eta *?bere* (>**haren, beraren**) formak [bestela: «energia eta energiaren formak»]

b) Batzuetan, alferrik sartzen dira genitiboak, eta kentzea izango da irtenbiderik errazen eta egokiena. Eta, hain juxtu, guztiz egoki datorkigu, berriro ere, arestian emandako adibide bera:

- [Se fue a su casa] Etxera joan zen.
- **Bere** jaka jantzi, eta...
- Kirola ~~bere~~ neurrian eginez gero...
- Poligono erregular batek ~~bere~~ alde eta angelu guztiak berdinak ditu.

Beste batzuetan, berriz, erraz konpentsa daiteke:

- *?Bere* anaia da.  
→ Anaia du.
- Halako kiratsa badario, nor etorriko/hurbilduko da *?bere* ondora?  
→ Halako kiratsa badario, nor etorriko zaio ondora? / nor hurbilduko zaio?

### 2.3. Erakusleen lehen gradua gehiegi erabiltzea (*bauzaleria*)

Hiru gradutan banaturik daude euskal erakusleak, solastunaren hurbiltasunaren arabera (hirugarren gradua izenordain pertsonaltzat ere erabiltzen da forma berean):

1. gradua: hau (ni; hemen)
2. gradua: hori (hi/zu; hor)
3. gradua: hura (hura/han)

Bada, gradu bakoitzak testuetan lukeen funtzio berezkoenetik guztiak ere lehen gradura, hurbilenekora ekartzeko joerari deritzogu *bauzaleria* (hau+zale+eri: adierazkortasun bila asmatua da terminoa, eta ez du izan nahi gaitzesle). Muturrenean, *bau-bemen* hertsiaeren zirkulutik *kanpoko mundura* zabaldu ezin halako bat litzateke, zenbait sindrome psikologikotan bezala (hiztunaren ikuspuntuak ekarriko lituzke erreferente guztiak berdin lehen gradu horretara).

Ez dira, hala ere, hauzaleria-kasu guztiak berdinak, eta proposatzen dugun ereduarekiko baino ez dira batzuetan akats, tradizio bat baino gehiago baitugu euskaraz.

Ikus ditzagun testuetatik harturiko adibide batzuk (ohi den moduan, bestelako akatsik ere bada testu *hauzale* horietan):

- Konposatu kimiko **hauek** mantenugaiak dira... Mantenugai **hauek** elikagaietan egoten dira... Izan ere, gerta liteke gosea dugunean elikagaiak jan eta **hauek** osasuna egoera onean mantentzeko behar diren substantziak ez edukitzea.
- Baina **prozesu hau** **prozesu** geldo baten arabera burutzen da [sic]. **Prozesu hau** geldoegia da giza ihardueren [sic] eragina zuzendu ahal izateko.
- ... «edukien zerrendarekin» batera. **Hauetan** epigrafe nagusienak [sic] eta unitatea motibatzen duen «ezaugarri nagusiak» izeneko atal labur bat nabarmentzen dira.
- Gizakiengan teknika **honen** bidez gizonezkoen antzutasuna tratatzen da. Emakumezkoengan berriz, enbrioia garatzea galarazten duten malformazioak tratatzeko erabiltzen da. Teknika **honen** aldaera bat alokatutako amak erabiltzea da (...). Aitak esperma ipintzen du (...) eta emakumezko bati artifizialki intseminatzen zaio, **beronengan** enbrioia garatzen delarik [sic]. Alokaturiko amak jaiotzen den umea gurasoei eman egin behar die eta **hauek** diru kopuru bat ordaintzen diote.

Horko lehen graduko erakusle guztiok (*hau/hauek*) aise ordeztu daitezke (eta ordeztu behar lirateke, gure ereduan) hirugarren (*hura/baiek*) nahiz bigarren graduko (*hori/horiek*), edo mugatzaile hutsez (*-al/-ak [edo -ok]*):

- Konposatu kimiko **horiek** *mantenugaiak* dira... Mantenugaiak elikagaietan egoten dira... Izan ere, gerta liteke gosea dugunean jaten ditugun elikagaiak ez edukitzea osasuna egoera onean mantentzeko behar diren substantziak.
- Baina **prozesu hori** astiro geldo burutzen da. **Prozesua** geldoegia da giza ihardueren [sic] eragina zuzendu ahal izateko.
- ... «edukien zerrendarekin» batera. **Haien artean**, epigrafe nagusienak [sic] eta unitatea motibatzen duen «ezaugarri nagusiak» izeneko atal labur bat nabarmentzen dira.
- Gizakiengan, gizonezkoen antzutasuna tratatzen da teknika horren bidez. Emakumezkoengan berriz, enbrioia garatzea galarazten duten malformazioak tratatzeko erabiltzen da. Teknika **beraren** aldaera bat alokatutako

amak erabiltzea da (...). Aitak esperma ipintzen du (...) eta emakumezko bati artifizialki intseminatzen zaio, **harengan** enbrioia garatzeko. Alokaturiko amak gurasoei eman behar die jaiotzen den umea, eta **haiek** diru-kopuru bat ordaindu.

Aipatu dugun funtzio-banaketa horretan, hain zuzen, badu lehen graduak inork ukatuko ez dion erabilera bat, bere-berea, *kataforiko* deritzona. *Katafora* zer den ulertzeko, grekorik ikasi beharrik ez dago: bi puntuen aurrean gero bi puntuon segidan azalduko dena aurretik biltzen duen elementua da kataforikoa. Tipikoenean:

- (honako) hau: ...

Proposatzen den eredian, bada, funtzio horretarako utziko genituzke lehen graduak erakusleak. Horretarako, eta, jakina, deixi arrunterako: (*bizi garen*) *mundu hau*, (*esaldi hau ageri den*) *liburu honetan*, (*gure herri honi*)...

Beste bi graduak geratzen dira kataforaren kontrakorako, hots, anaforarako. Bigarren eta hirugarren graduaren artean ere bada funtzio-banaketarik, eredu zorrotzean (kontuan har bedi gaztelania genero-bereizkuntzaz ere baliatzen dela, eta guk bestelako bidez lortu behar dugula zehaztasun bera):

- a) Hirugarren graduak erreferente solte bat (izen-sintagma bat) ordeztzen du, diskurtsoko erreferente baten errepikapena markatuz (ez testu fisikoan seinalatuz):
  - Hala esan diot **lagunari**. **Hark** (~~Honek~~), orduan, ...
  - **Mikeli** esan zioten, eta **hura**... (~~hau~~)
  - 17 urterekin **seminarioan** sartu zen. **Han** (~~hemen~~) bost urte pasatu...<sup>7</sup>
- b) Bigarren graduak aurreko esaldi nahiz perpaus osoa biltzen du erreferentetzat, izenordain modura doanean:
  - Hala esan diot lagunari. **Horrek** (lagunari hala esan izanak)...
  - Konforme nago, baina (~~honek~~) **horrek** (konforme egoteak) ez du esan nahi...

---

<sup>7</sup> Berdina da banaketa adberbio deiktiko/anaforikoen kasuan ere: han/hor/hemen, hala(ko)/horrela(ko)/honela(ko)...

Izen bati lagunduz doanean, berriz, elementu bat ordezteko ere erabiltzen da; alegia, testuan aipatu berri den erreferentzia biltzen dute bien artean izenak eta erakusleak:

- Lertxundik idatzia da *Otto Pette. Liburu horretan...* (liburu ~~horretan~~)

Zehaztu dezagun, hala ere, aipatutako bereizkuntza ez dela beti erabatekoa pragmatikoki. Izan ere, biak dira zilegi batzuetan, diskurtsoko anafora arrunt modura nahiz testuan seinalatuz bezala bil baitaitezke erreferenteok, zein ikuspegitatik hartzen diren:

- Bazen gizon handi-handi bat han. Gizon **hark** [delako gizonak]... / Gizon **horrek** [aurreko esaldian aipatu den gizonak]... (gizon ~~horrek~~)
- Lurrikarak gertatu dira Txilen. Herrialde **hartan/horretan** / **han**... (herrialde ~~horretan~~ / ~~hor~~/~~hemen~~)

Kasu horretan, oro har, hirugarren gradukoa da aukeran egokiena testuetarako, deiktikotasun gutxienekoa baita; era horretan, bigarren gradua gorde dezakegu testu barneko deixiarako, eta, hirugarren gradua, berriz, kanpoko anaforarako.

Funtsezkoena bilduz: *su* erdarazkoari buruz esan dugunaren ildo beretik, erdal *este/esto(s)/estas* anaforikoak ere ez dira beren horretan kalkatzekoak.

Kontuan hartu behar da, bestalde, erdaraz erakuslerik ageri ez den zenbait testuingurutan ere erakusleaz baliatzen gara euskaraz. Halakoetan, orobat zaindu behar da funtzio-banaketa, zeharka ere okerra eragin baitezake erdararen interferentziak:

- Patxiri begiratu, eta **hartaz** (~~bera(ta)z/honetaz~~) barre egiten hasi zen.  
→ [erdaraz: de él /de éste]
- Begien aurrean dago ikuskizuna, baina apur bat saiatu behar da (**hura**) (~~hau/bera(tu)~~) ikusteko.  
→ [para verlo]
- Nagusiari esan zion, eta **hark** (~~horrek~~)...  
→ [al jefe, **que**... / al jefe, y **éste**...]

### 3. Trinkotze-prozedurak

#### 3.1. Oro har

Badute gure inguruko erdarek, eta gaztelaniak bereziki, joera nabarmena, idatzizkoan edo solas formalean askoz ere *periodo* edo loturiko esaldi-andana luzeagoak antolatzeko, adierazpide arruntean baino. Besteak beste, preposizio bidezko hainbat perpaus menderatu zirkunstantzial nahiz bestelako erantsiz aurreko perpaus (nahiz izen) nagusi bati.

Joera horretan, (hizkuntza guztietan) adierazpide arruntean esaldi oso diren batzuek ere beren esalditasuna galtzen dute formalki, eta menderatu modura integratzen dira periodoan. Hala, berez, molde arruntean, esaldi unitate banan-banakoz ematekoa zen enuntziatua jarraitasun handiagoz, etenik gabe, molde trinkoago-edo batean ematen da. Halakoei deritzegu *trinkotze-prozedura*.

Atal honetan bereziki landuko ditugunetan sartu gabe ere, eman dezakegu adibide garbiren bat, halako prozedura askotarikoen ordezkari. Izan ere, erdaraz izenaren aurrera aldatzen diren adjektiboen kasuan, aipatua dugu jadanik honelatsuko *eknuazioa* (izan ere, zinez hizkuntzaren aljebra moduko bat da hor erdarak darabilena):

- la iglesia. (Ésta/Dicha iglesia) era pequeña >  
la iglesia, que era pequeña, >  
la iglesia, pequeña, >  
la pequeña iglesia.

Etenen kontua ere, puntuazio eta guzti, garbi ageri da hor: azken aldaera hori lehenetsiko du noski erdarak, oro har, idatzizkorako. Etenik gabeko eta trinkoen hori, alegia. Hori, ordea, eta hor dago gakoa, erdararen berezitasuna da, eta ez da zertan imitatu (edo, besterik gabe, ezin da) beste hizkuntza batean.

Eztabaidagarri izan daiteke ea hori euskaraz halaxe eman daitekeen, hala komeni den eta egokiena hori den eta nola. Ideia nagusia, hala ere, emana dugu dagoeneko: prozedura horiek guztiok erdararen *aldaera estilistikotzat* jo behar dira, eta ez da zertan molde berean eman halakoak

euskaraz (batzuetan, posible, posible da, baina orduan ere neurtu behar da ea naturala den): oinarritzko esanahiak du funtsa, eta ez formulazio jakinak (horra berriro aljebra-usaina, hizkera arruntetik aldenduz: ekuazio, formula...).

### 3.2. Sasimenderatuak

Gaztelaniak badu joera berezia –etenik gabeko jardun-katea luzeak osatzeko joera orokorragoaren alderdirik behinena du hori– adierazpide arruntean beste esaldi oso bat litzatekeena (koordinatua zein alborakuntzazkoa) perpaus menderatuaren forman emateko.

Hala, formaz perpaus menderatua den horren berezko adiera aldarazten da (desbideratze estilistikoa):

- Los perros ladraban y (, por su parte,) los niños gritaban. [bi esaldi, koordinazio arruntez] >  
Los perros ladraban, **mientras (que)** los niños gritaban. [bigarren esaldia perpaus sasimenderatu bihurtua]
- Las olas se alzaban y (, luego) volvían a caer... >  
Las olas se alzaban(,) **para** (luego) volver a caer...

Halako prozedurak, definizioz, hizkuntza bakoitzaren berezitasun dira, izatez, eta kalko okerrak eman ohi dituzte, noski, beste hizkuntza batera beren horretan aldatuz. Gure kasuan, gainera, euskara hizkuntza prepositiboa ez izateak are desegokiago bilakatzen ditu halako kalkoak, egitura gramatikal *fisikotik* hasita (erdaraz ez bezala, juntagailuak ordeztuko lituzketen menderatze-markak perpausaren amaieran baitoaz eskuarki).

Kalkoa aukerakoagoa balitz ere, haatik, ez genuke zertan hartara jo, badugu-eta euskaraz halakoak emateko, esaldi osozko bide arruntaz gainera, aditz-isiltzean oinarrituriko prozedura *aringarri* guztiz egokirik, besteak beste (halakoak lirateke, izatekotan, gure trinkotze-prozedura bereziak):

- Zakurrek zaunka **egiten zuten**, eta hurrek oihu (; hurrek, berriz, oihu).
- Olatuak altxatu **egiten ziren**(,) eta (gero) atzera/ostera **erortzen**...



### 3.2.1. Gerundio narratiboa (baztertzekoa)

Sasimenderatuon kasu berezia dugu erdarazko *gerundio narratibo* direlakoena ere. Berezitasuna, besteak beste, erdaraz ere arauzkoak ez izatea da (nahiz zenbaitek barra-barra erabili). Euskaraz ere kutsatua zitzaigun, baina badirudi inor gutxi geratzen dela dagoeneko halakoen desegokitasunaz jabetu gabe:

- \*Kolpe bat eman zion, hilda utziz. [> Kolpe bat eman zion, eta hil.]
- \*Parisera joan dira, datorren astean itzuliko direlarik. [Parisera joan dira, eta datorren astean itzuliko dira.]

### 3.2.2. Erlatibo esplikatiboa

Nolanahi ere, erdarazko sasimenderatuetatik lanik handienak ematen dizkiguna *erlatibo esplikatibo* delakoa da, hots, [, *que*] eta aldaerak. Bereziki, formalki perpaus nagusia denaren barnean tartekaturik ageri denean; hots, IS baten aposizio eginkizunean doanean.

Izan ere, amaieran –zentzu narratiboa badu, behintzat–, errazagoa da baliokidea aurkitzen:

- Se lo dio al portero, **que** lo guardó en una caja.  
→ Atezainari eman zion, **eta hark** kutxa batean gorde zuen.

Arazoa, beraz, honelakoekin izaten da:

- Al portero, **que** le conocía desde niño, no le importó.

Adibide horren kasuan, erlazio kausal bat iradokitzen da, eta horregatik eman daiteke aski eroso *bait-* nahiz *-eta* perpausez:

- Atezainari, **mutikotatik ezagutzen baitzuen**, ez zitzaion axola izan.
- Atezainari, **mutikotatik ezagutzen zuen(-)eta**, ez zitzaion axola izan.

Baina ez da beti hala:

- Al portero, que seguía leyendo en su rincón, no le importó.

Kasuistika guztia hona ekartzetik ez daukagu, baina adibidetxo horrexek garbi erakusten du zein diren bide zuhur bakarrak:

a) edo kokagune txertatu horretatik ateratzea sasimenderatua:

- Atezainak egunkaria irakurtzen jarraitzen zuen, eta ez zitzaion axola izan.
- Atezainari ez zitzaion axola izan: hantxe segitzen zuen egunkaria irakurtzen.

b) edo propio halako egiturak kalkatzeko euskarak aspaldi garatu zuen tresneria berezira jotzea:

- Atezainari, zeinak egunkaria irakurtzen jarraitzen baitzuen, ez zitzaion axola izan.

Bideekin batera, badaezpada, aipa ditzagun desbideak ere. Alegia, ez dela noski egokia *zeina(k)* erakoa baztertu baina aposizioaren moldeari eusten diona, erlatibo zehaztaileaz oker baliatuz:

→ \*Atezainari, egunkaria irakurtzen jarraitzen zuena, ez zitzaion axola izan.

Eta beste esanahi bat du, berriz, gramatikalki zuzena denak:

→ ?Atezainari, **egunkaria irakurtzen segitzen zuenari** [atezain gehiagoren artean zehazten da], ez zitzaion axola izan.

Orain arteko adibideok geuk asmatuak dira, azalpenaren argi beharrez, baina hona azken oker bion adibide bana testu-liburuetatik jasoak:

- \*Beste ikerlari batzuek, berriz, *kbumos* hitz grekoarekin lotzen dute, «landare-zukua» edo infusioa esan nahi duena.
- ?Antzina Lurraren adinari buruz zituzten usteak, **gaur egun absurduak iruditzen zaizkigunak** [horiexek soilik]... zeharo gaingiduta gelditu dira.

Garbi dago sasimenderatuok esaldi berezi modura ematekoak direla:

- Beste ikerlari batzuek, berriz, *kbumos* hitz grekoarekin lotzen dute. Hitz horrek «landare-zukua» edo infusioa esan nahi du.
- Antzina Lurraren adinari buruz zituzten usteak **gaur egun absurduak iruditzen zaizkigu**, eta zeharo gaingiduta gelditu dira.

Horren alternatiba zuhur bakarra, berriro diogu, *zeina(k)* erakoak dira (erregistroa eta gustuak gorabehera). Erlatibo arrunten eginkizuna ez baita, oro har, halakoak ematea.

Bada salbuespen bat, hala ere. Aurrekaria IS mugatua ez denean, (zehatzago: erreferentea espezifikoa ez denean), eta *zer/nor* kasuan (absolutiboan), zilegi ez ezik, guztiz egokia da –eta maiz baliatzen gara noski aukera horretaz– *-Na(k)* egituraz ematea halakoak aposizioan (existentzia-predikatu eta antzekoetan bereziki):

- Badira atezain **batzuk(,)** ezagutzen dutenak  
[ezagutzen duten atezain batzuk]
- Ezagutu dut neska **bat(,)** zure herrian bizi dena  
[zure herrian bizi den neska bat]

Hor oso aukerakoak izanik ere, arrisku apur bat badu, haatik, hala-koetara gehiegi ohitzeak: aukera bakarra balira bezala eta nonahi erabiltzea (izan ere, esaldi sinonimoek erakusten duten legez, erlatiboazko

perpau arrunten dislokazio modukoak baino ez dira horiek). Hala, gero testuinguru gramatikal horretatik kanpo ere (hots, IS mugatu-espezifikoezin eta absolutibotik kanpo) berdin jokatzeko tentazioa izan dezakegu, eta ez dago, ikusi dugunez, bide egokirik horretarako.

### 3.3. Nominalizazio-estiloaren gehiegikeriak

Munduan hizkuntza bat baino gehiago bada *nominalizazio* deritzon prozedura gramatikalaz batere baliatzen ez dena. Ez da harritzekoa hori: adjektiborik nahiz aditzik ez duenik ere bada. Izan ere, hizkuntza bakoitzak bere tresneria berezia du kategoria eta estrategia gramatikalei dagokienez, eta haietara jotzen du zeinahi esan-behar bere formulazio propioz adierazteko.

Nominalizazioez baliatzen diren hizkuntzen artean ere, jakina, bada alderik, bai nominalizazio-egiturok balia daitezkeen esparruari eta bai joeraren indarrari edo maiztasunari dagokionez.

Izatez, beraz, honetan ere aurreko ataletakoen antzeko kontua dugu, baina zabal-zabala: ea erdaraz nominalizazioetara jotzen den kasuetatik zeinatan den egokia euskaraz ere berdin jokatzeko. Zabalaren zabalez, ordea, alferrik saiatuko ginatke kasuistika zehatz-mehatzez biltzen hemen auzi hori.

Hona hemen, hala ere, oinarri eta jarraibide batzuk, kalko-arrisku zabal horren inguruan.

Nominalizazioak, edozein hizkuntzatan, beste molde oinarrizkoago baten aldaeratzat hartzekoak dira. Nabarienik, aditzak izen bilakatzen dira, baina egiaz esaldi osoak dira izen-sintagma bihurtzen direnak. Alde horretatik, erdarazko infinitiboen –eta gure aditz-izenen– hurrengo pausoa da nominalizazioa:

- crear (crearemos, se creará) cuanto antes un club para jubilados en el barrio > (la) creación urgente de un club para jubilados en el barrio

Hala ere, erabat aldatzen dira gauzak sintaxiari dagokionez, nominalizatorako pauso hori emanaz gero –ardatza aditza izatetik izena izatera pasatzen baita–, eta, ondorioz, inguruko konplementazio osoa hartara egokitu behar da (hor da funtsezkoa preposizioen jokoak, eta euskarara, jakina denez, ez da hizkuntza prepositiboa).

Ikus adibide batzuk, non izen-sintagmaren osagarri izan nahi duten elementuak adizlagun formatik izenlagun formara aldatu gabe baitaude (bestalde, ordenaz ere, determinatzailea, artikulua kasu honetan, izen-sintagmaren azken muga da –deklinabide-atzizkiak hari lotzen zaizkio–, eta atzetik doan sintagma ezin da izan izen-sintagmaren parte):

- biologiako katedradun \**institutuan* [instituko biologia-katedraduna]
- \**zirriborroak egiterakoan* plazera [zirriborroak egiterakoan **sentitzen/sumatzen den/duen/dugun** plazera/atsegina]
- hasierako elkarriketa \**gurasoekin* [gurasoekin hasieran **izandako** elkarriketa]

Euskaraz, berdintsu egiten da aditz-izenerainoko bidea, inolako arazorik gabe:

- auzoan jubilatuentzako klub bat lehenbailehen sortzea (< sortuko dugu/dute/da)

Hortik aurrerakoan, berriz, nominalizazioa posible den kasuan ere, era askotako trabak eta debekuak ditugu bide horretatik (ez baita hori izaten, aukeran, euskarazko adierazpide berezkoa):

- ? jubilatuentzako klub baten **sorkuntza** [zilegi da, baina ez naturalena]
- ?? (klub baten) **auzoko sorkuntza** / ??? (klub baten) **sorkuntza auzoan**
- ??? (klub baten) **premiatzko sorkuntza**
- !!! jubilatuentzako klub baten **auzoko premiatzko sorkuntza**

Euskaraz natural samar diren nominalizazioek, oro har, konplementazio oinarri-oinarrizkoa daramatenetan dute muga (alegia, IS *hipertrofiatu* gabe jardun behar dugula):

- eguraldiaren (inoizko) aldaketak

Osterantzean, *bi bide nagusi* ditugu zuhurrenak euskaraz halakoak egoki emateko:

a) edo, seinalatu dugunez, *-t(z)e aditz-izenarekin* moldatzen gara, arazorik gabe:

- eguraldia gurean inoiz aldatzea / aldatu izana

b) edo, nominalizazio-izenari eutsi bai, baina bestela izenaren konplementazio berezi banakakoa litzatekeen hori *perpaus erlatibo* batean biltzen dugu (edo haren molde laburturen batean):

- eguraldiak gurean inoiz izaten dituen (izandako) aldaketak

Aukerok aski ez badira, berriz, izen-egituratik guztiz aldendu, eta azpian dauden perpausak agerraraziko ditugu:

- la construcción de... ha provocado un conflicto entre...  
→ ... eraiki dute, eta horrek ... istiluak sorrarazi ditu.

Gakoa, bistan da, aditzean oinarrituriko sintaxi arruntetik izenean oinarrituriko nominalizazio-bide horretara itsu-itsuan ez jotzea da.

Horrela esanda, sinplea dirudi, baina kontuan hartu behar da nominalizazio-estilo abstraktuzale horretan murgildurik dagoela erabat erdarazko egungo jardun idatzia (nominalizaziozko azpizahar oso bat osatzeraino ia), eta pisu handia duela gudan interferentzia-bide hain sistematiko horrek. Ahalegin berezia egin beharra dago, bada, horretan ere euskararen bide burujabeetatik jarduteko, erdararen fraseologia eta tik sintaktikoen morrontzatik ahal den askeen.

Duda handirik gabe esan daiteke horixe dela euskal prosak une honetan duen behaztoparri nagusia. Eta, beraz, zuzenean nahiz zeharka, erdaratik itzuli behar duen testugileari egokitzapen-lanik handiena eskatzen diona: etengabe egingo du topo halakoekin, eta gehienetan beste bide batetik eman beharko ditu.

Kasu honetan, bada, are garrantzizkoagoa da hasieratik jabeturik egotea ez dela erdarazko prozeduraren imitazioa bidea, hala alferrik ez zahutzeko indarrak eta kemenak, horiek guztiak beharko baititugu halakoen euskarazko adierazpide egokiak nominalizazio-estilo itsutik kanpo bilatzeko, hots, euskarazko adierazpide normalez.

Nominalizazio-estiloak badu beste eragin aski bitxi bat: aditzak izen bihurtzen direnez, hala desagertu den aditz horren ordeko bat *asmatu* behar da gero perpausa osatzeko (aditz *betegarriak* nahiz *ortopedikoak* direla esan liteke; euskaraz, kasu askotan, tradiziozko gabekoak eta guztiz bitxiak, bihurriak ez ezik):

- Se ha producido un cambio del/en el clima. [Ha cambiado el clima.]

Aditzetatik abiatu ordez horrela nominalizazio-izenetatik abiatzeak esapide puztuak sorrarazten ditu maiz, bistan denez, eta aski xeble ibilarazten du horrek zenbait jende *producirse*, *efectuar*, *proceder a* eta beste hainbat aditz-mamuren euskarazko ordainaren bila. Halakoa da, ospe-tsuenik, *burutu* aditzaren erabilera ustela:

- !! Klimaren aldaketa (bat) burutu da.

Hain nabarmen ez denean ere, nominalizaziorik arruntenetan ere, ez da beti garbi egoten zein aditz erabili betegarri:

- Aldaketa handia izan/egin/jo/jasan du Patxik.

Ez genuke hainbestean kezkatu behar halako aditzen inguruko zalantzez: zalantza bera da beste abisu bat aukeran nominalizazio-bide horretatik jo ez dezagun:

- Oso aldatuta dago Patxi.

Aurreko guztiak ez du inolaz ere esan nahi batere nominalizaziorik erabili behar ez denik euskaraz, eta, are gutxiago, abstrakzioari uko egin behar diogunik (!). Bai, ordea, ez dugula bortxatu behar euskara bere moldeen aurka, erdara trakeski imitatuz bere berezitasunik berezietan ere.

Itzulpena izaten da aitzakia askotan, baina, hain zuzen ere, itzul-tzaileak izan behar du, inor baino areago, hizkuntzen arteko desberdintasunon jabe, hizkuntza bakoitzari berea emango badio.

#### 4. Gainerakoak

Esana dugu: kalko guzti-guztien errepertorioa osatu ahal izateko, aurretik, jokoan dauden hizkuntzen deskribapen konparatu oso-osoa eduki behar genuke –mailaz maila eta puntuz puntu–, eta garbi dago ezinezkoa dela hori, hizkuntza bakarraren deskribapen osoa bera ere ezinezkoa baita noski.

Dena dela, jorratu ditugun kasu adierazgarriotan azaldu dugun *filosofia*, testugileak bestela ere behar duen sen eta ardurarekin konbinaturik, bada aski oinarri beste antzeko kasu askotara ere aplikatzeko irizpide berak, hizkuntzaren maila guztietan.

Hasieratik garbi eduki behar genukeena errepika eta azpimarra dezagun, bada:

Hizkuntzaren hutsuneak edo beharizan berriak betetzeko prozedurariko bat da kalko bidezkoa. Ez da zilegi, berriz, nagikeriaz zein hobe-ustean, hizkuntza horretan lehendik egoki asmatu zegoena berriro eta okerrago asmatzen ibiltzea norbera, esapidetako beste hizkuntzaren moldera bortxatuz.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

ISBN: 84-457-2298-0



9 788445 722985

SALNEURRIA: 2,50 €

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco